

# GUaiXe.net



**Asiako erlamin habia agertu da Altsasun**



Sakanerria >> 7

**Asteburu honetan bai, Lizarragan San Klemente festak dira. Gaur hasi eta igandean bitartean izanen da zer ospatu Ergoienako herrian**



Sakanerria >> 6



## Turismoko bidelagunak

>>> 8

**Emakumeen Sakanako Pala Txapelketa hastear da**

>>> 11

**Errigorak 412 zare banatuko ditu 25 punturen bidez**

>>> 5

**Lakuntzako Pertza elkartearen 50. urteurrena**

Larunbatean Bazkide Eguna ospatuko dute elkarteko kideek

>>> 6

**Bi ikastetxe Bartzelonako Confint topaketan**

Ingurumen arloan ikastetxean egindakoa azaldu zuten

>>> 9

## Emakumeenganako indarkeriaren kontrako eguna asteartean

>>> 9



**Orritz, 25 urteko dantza jarduna**

>>> 13

## Euskalgintza saretzen

>>> 5

**Zazpi enpresendako gobernuaren 3,6 milioiko diru-laguntza**

28,2 milioi euroko inbertsioak egin eta 69 lanpostu sortzea-gatik eman die diru-laguntza

>>> 3

**Poesia errezitaldia larunbatean Uharte Arakilen**

Bederatzigarren edizioan lau poeta eta bi aktore ariko dira gitar-jolearen laguntzaz

>>> 15

**Bihar, krisiaren kontrako festa**



**Kubatak: 3,5€ Txupitoak: 1€**

**ETXARRI ARANATZ**

**SAKANA JARTURREN ETA MORKOTSEN BEGIEZ 20 URTEZ**

**ZINTA LIBURUXKA 12€**

**Bierriken bazkideek 10€**

Egin zure erreserba: **948 564 275** bierrik fundazioa

# ZORION agurrak

Argazkiak emateko lekuak: • Altsasu: Foruen Plaza 23-1 • Ordainketa, Guaixeren bulegoan edota 3035 0018 47 0181012564 kontu zenbakian ingresatuta egin daiteke.

ARGAZKIAK ASTEBETE LEHENAGO EKARRI, TOKIRIK GABE GELDITUKO ZARA BESTELA!

Eta orain... 4 euro argazkia eta Pirritx, Porrotx eta Marimototsen opari-papera doan! Bazkideek 3,50 euro!



**LEHALSA**  
Leiho-Isolatzailak • Aluminioa-P.V.C-Mistoak

Tailerra eta erakusketa  
Zuntaipe auzoa z/g (N1 zaharra), Altsasu  
Telf.: **948 468 559**  
info@lehalsaventanas.com  
www.lehalsaventanas.com



**Maria Pilar ZORIONAK** amiñe!! Egun ona pasa eta muxu handi bat gure partez.

**Aittuna Pedro ZORIONAK**!! Eta eskerrik asko eskeintzen geittuzun denborangatik. Milla muxu denon partes.

**Iradi Lanz Senar ZORIONAK** Lorena eta Joseba!! Muxu handi bat. Aitonamonak eta izebak.

**Beñat Goena Diez de Arizaleta** Etxeko txikitxoak urte bat bete du!!! **ZORIONAK**!!! Izugarri maite zaitugu. Markel, aita eta ama.

**Ekhiñe eta Axio ZORIONAK** 3. eta 2. urtebetetzean!! Ongi pasatu zuen egunean eta muxu pila patata tortilla. Etxeko guztien partetik.

**Magali ZORIONAK** politta!! Datorren urtien zuk bi-boliñe jo ta guk abestuko diau. Etxarrikuen partes 6 belarri tirakada eta muxu asko.

**Magali** Guaikuen bei, bigarren eskubakin zenbatu ttugu 6 urteik. Milla muxu printzesita!!! Etxekuek.

**Artzai Karasatorre Sureda ZORIONAK** Etxegorriko mutiko polit hori!! 7 urte bete dituz! asko maite zaitugu. Etxekoek.

**Irati Irigoien Zubiria ZORIONAK** zure 12 urtebetetzean. Muxu handi bat aita eta amaren partetik.

## azaroak

# 21-27

Sakanan antolatzen diren ekitaldien berri emateko: [gutunak@guaixe.net](mailto:gutunak@guaixe.net)

### Musika

**La Chula Potra.** Azaroaren 21ean, ostiralean, 23:45ean Altsasuko Arkangoa tabernan. **Gozamenez.**

**Udal musika eskolako kontzertua.** Azaroaren 22an, larunbatean, 12:00etan Etxarri Aranzako kultur etxean.

**VII. Maisu-tekno.** Azaroaren 22an, larunbatean, 20:00etatik aurrera Olatzagutiko Maisuenea gaztetzearan.

**Erkudengo Ama abesbatza.** Azaroaren 22an, larunbatean, 20:30ean Altsasun barna.

### Dantza

**Orritz dantza taldeak 25 urte.** Azaroaren 22an, larunbatean, 13:30etik aurrera Irurtzunen.

### Antzerkia

**De vacaciones.** Azaroaren 22an, larunbatean, 20:00etan Altsasuko lortia kultur gunean. **Supiranta teatro.**

**Ovarios verdes fritos.** Azaroaren 22an, larunbatean, 20:00etan Olatzagutiko kultur etxean. **Detritus teatrus.**

**Burutik jota.** Azaroaren 23an,

igandean, 18:00etan Irurtzongo kultur etxean. **Trokolo teatro.**

**Auskalo.** Azaroaren 24an, astelehenean, 19:00etan. Ondoren foruma. Altsasuko lortia kultur gunean. **Teatro que madura.**

### Ipuin kontalaria

**Ipuin erotikoak.** Azaroaren 21ean, ostiralean, 22:30ean Altsasuko Gautxori tabernan. Kontu-Kantoi narratzailea eta margolaria. **Gozamenez.**

**Ipuinez ipuin.** Azaroaren 27an, ostegunean, 17:00etan Etxarri Aranzako liburutegian. **Izaskun Mujika.**

**Kamishibai ipuinak.** Azaroaren 27an, ostegunean, 18:00etan Olatzagutiko liburutegian. **Isabel Millet.**

### Zinema

**De tal padre tal hijo.** Azaroaren 21ean, ostiralean, 21:45ean eta azaroaren 23an, domekan, 20:00etan Altsasuko lortia kultur gunean.

**Loreak.** Azaroaren 21ean, ostiralean, 22:00etan eta azaroaren 23an, domekan, 20:10ean Altsasuko lortia kultur gunean.

**Tarzan.** Azaroaren 23an, domekan,

17:00etan Altsasuko lortia kultur gunean.

### Film laburrak

**Emakumeenganako indarkeriaren aurkako film laburren I. zikloa.**

Azaroaren 25ean, asteartean, 12:00etan (ikasleendako) eta azaroaren 27an, ostegunean, 18:30ean. Ondoren, foruma. Altsasuko lortia kultur gunean.

### Bizikleta irteerak

**Kañada.** Azaroaren 23an, domekan, 8:30ean Altsasuko Zumalakarregi plazatik eta 9:20ean Bioitza kanpinean. 57 km. **Burunda klubeko mendi bizikleta taldea.**

### Ibilbideak

**Haritz zaharren ibilbidea eta ontzigitzaren interpretazio ibilbidea.** Azaroaren 23an, igandean, 9:30ean Etxarri Aranzako kanpineko aparkalekuan. Ondoren, Altsasura, Dantzalekura. **Zuhaitz Zaharren Lagunak.**

### Erakusketak

**Ferietako argazki rallya.** Azaroaren 23ra arte, 19:30etik 21:00etara Altsasuko Gure Etxea eraikinean. **Altsasuko Mendigoizaleak.**

**Hiru keinu iraganari.** Azaroaren 30era arte, astegunetan 18:30etik 21:00etara eta domeketan 19:00etatik 21:00etara Altsasuko lortia kultur gunean.

**Pintura detritus.** Abenduaren 20ra arte Altsasuko Basoko Mari dendan.

**Ziordiko liburutegiko azken 15 urteetako ekintzak.** Abenduaren 29ra arte, astegunetan, 16:00etatik 20:00etara Ziordiko liburutegian.

### Hitzaldiak

**Goienar, energia berriztagarrien sorkuntza eta kontsumoa.** Azaroaren 21ean, ostiralean, 19:00etan Izurdiagako elkartearen. **Hizlariak: Goienar eta Sustrai Erakuntza.**

### Literatura

**Poesia erreztaldia.** Azaroaren 22an, larunbatean, 17:30ean Uharteko Arakilgo Donibane jubilatuko elkartearen.

### Tailerrak

**Errespetatzen nautenean... Ziber jazarpena gaztaroen.** Azaroaren 22an, larunbatean, 18:00etan Altsasuko Intxostiapunta gazte gunean. **13 eta 16 urte bitartekoendako.**

**Maitasun erromantikoaren mitoak eraitsiz.** Azaroaren 26an, asteazkenean, 18:00etan Altsasuko lortia kultur gunean.

### Bestelakoak

**Hondakinei buruzko kontsultako galde sorten banaketa.** Azaroaren 21ean, ostiralean, 19:30etik 21:00etara; azaroaren 23an, igandean, 13:00etatik 14:30era eta azaroaren 24an, astelehenean, 10:30etik 13:00etara Etxarri Aranzako plazan.

**Lakuntzako Pertza elkarteak 50 urteak ospatzera.** Azaroaren 22an, larunbatean, 12:00etatik aurrera Lakuntzan.

**Murala.** Azaroaren 23an, domekan, 18:00etan Altsasuko Intxostiapunta gazte gunean. **12-30 urte.**

**Emakumeenganako indarkeriaren aurkako ikasle adierazpena.** Azaroaren 25ean, asteartean, 11:30ean Altsasuko lortia kultur gune parean.

### Deialdiak

**Hipotekek kaltetutako Plataformak.** Azaroaren 21ean, ostiralean, 19:00etan Altsasuko Gure Etxeko lehen solairuko 1. gelan, bilera.

**Euskal Presoak Euskal Herrira!** Azaroaren 21ean, ostiralean, 20:00etan Lakuntzako, Arbizuko eta Etxarri Aranzako plazetan, elkarretaratzeak.

**Euskal Presoak Euskal Herrira!** Azaroaren 23an, domekan, 20:00etan Altsasuko plazan, elkarretaratzea.

**Autodefentsa sarea josiz, emakumeon kontrako indarkeriari aurre egin!** Azaroaren 25ean, asteartean, 19:00etan Etxarri Aranzako plazan.

**Autodefentsa sarea josiz, emakumeon kontrako indarkeriari aurre egin!** Azaroaren 25ean, asteartean, 20:00etan Altsasuko lortia kultur gune parean. **Altsasuko mugimendu feminista.**

**Emakumeenganako indarkeria ezabatzeko eguna.** Azaroaren 25ean, asteartean, 19:30ean Olatzagutiko San Migel plazan.

**Jaki bilketarako boluntarioen bilera.** Azaroaren 27an, ostegunean, 17:00etan Altsasuko Xabier zentroan.

Ostiralero **SAIOA** 9:30etik 10:30era  
Errepikapenak 14:00etan eta 19:00etan.



**beleixe** *online*  
www.guaixe.net

*Piztu irratia!*

**ASTEBURUKO AGENDA**  
**ASTEKO ERREPASOA:**  
albisteak, kirolak,  
Bidelagun elkarteak, Altsasuko ikurrina,  
euskaltzaleen bilgunea...

*Esataria: Alfredo*

## SAKANA



Beraiin gazta aurretik ere saritu dute.

## Munduko gazta txapelketatik hiru sari Sakanara

**Unanuko Balda-Artolaren, Olatzagutiko Quesos La Vasconavarraren eta Julen Karasatorren eta Nerea Luisen gaztak saritu dituzte**

Londonen jokatu berri da World Cheese Awards txapelketa, munduko gazta sariketa garrantzitsuetakoa dena. 33 herrialdetako 2.600 gazta aurkeztu dira lehiaketara eta haiek hainbat jatorritako 250 dastatzailek epaitu dituzte. Idiazabal jatorri izendapenak 29 sari jaso ditu.

Horien artean Sakanako hiru gazta ekoizle daude. Balda, Arto-

la y otros unanuarrek ekoizten duten Beriain markako gaztak brontzezko domina irabazi du, asteko bi tona baino gutxiagoko ekoizleen mailan. Idiazabal mailan super-urrezko garaikurra lortu du Vasconavarra markako gaztak, Olatzagutiko izen bereko enpresak ekoizten duena. Haiekin batera, Agurainen June gazta ekoizten duten Julen Karasatorre etxarriarrak eta Nerea Luis lakuntzarrak brontzezko domina eskuratu dute ardi esnez egindako gazta gogorren mailan.



Bilera hasieran zeuden ekintzaile eta enpresariak.

## Diru-iturriak non dauden

Horixe azaldu zieten makina bat hizlarik Altsasuko Iortia kultur gunean elkartu ziren 25 bat enpresari eta ekintzaile. Cederna-Garalurrek antolatutako jardunaldian banku eta kutxa bidezko

finantzazioaz aparte, crowdfunding, finantza aingeruak, banka etikoa, arrisku kapitala eta partaidetza mailegu eta finantza zerbitzu etiko eta solidarioen berri eman zitzaizkien bertaratuei.

# Zazpi enpresek 3,6 milioi euroko laguntza jasoko dute egindako inbertsioengatik

**Ibarreko enpresek lagundu zitekeen 28.273.750,62 euroko inbertsioa egin dute eta 69 lanpostu sortu. Nafarroako Gobernuak 3.610.640,83 euroko diru-laguntza eman die**

Laguntzetako lau industriako enpresek (Lakuntzako hiru), nekazaritza-elikagaien sektoreko beste bik eta lehen sektorearekin lotutako beste proiektu batek jaso dituzte. Guztien proiektuak aurreten edo heldu den urtean despedituko direla jakinarazi du foru administrazioak. Hala ere, dirua heldu den urtean jasoko dute.

Lehen lehendakariorde Lourdes Goikoetxeak jakinarazi duenez, "hemendik aurrera 2015-2017 urteetarako enpresetarako diru-



Sakana kooperatibako piezak.

laguntzak programatzeko beste aldi bat hasiko da: lastailaren 3an sinatutako Jarduera Ekonomikoa eta Enplegua Suspertzeko Akor-

Enpresa	Herria	Lagundu zitekeen inbertsioa	Laguntzaren %	Diru-laguntza	Sortutako enplegua	Jarduera
Avicola San Miguel	Hiriberri	725.477,75	%19	137.840,77	0	Ongarrien fabrikazioa
Uhalrod SL	Uharte A.	6.800.000	%20	1.360.000	15	Alanbrea, kateak eta malgukiak
Aceros Moldeados de Lacunza SA	Lakuntza	3.900.000	%10	390.000	17	Burdin eta burdin aleazioen produktu basikoak
Sakana S. Kooperatiba	Lakuntza	15.900.000	%10	1.590.000	34	Besteen bidezko ingeniari mekanikoa
Industrial Barranquesa	Lakuntza	493.198	%7	34.523,86	0	Produktu metalikoek ekoizpena
Agotzaina SL	Arbizu	305.000	%15	45.750	2	Elikagaien ekoizpena
Felix Resano Igoa	Ergoiena	150.074,87	%35	52.525,26	1	Gaztagintza
<b>Guztira</b>		<b>28.273.750,62</b>		<b>3.610.640,83</b>	<b>69</b>	

dioaren ondorioa da". Goikoetxeak jakinarazi duenez, akordioan 353 milioi euro erabiltzeko konpromisoa hartzen da enplegu eta

berrindustrializazio politiketarako. Gobernuak ere berrikuntzarako lehen laguntza-deialdirako gutua baimentzea onartu du, indus-

tria sustatzeko programa horren barnean sartzen dena; 2015-2016 aldirako 7,8 milioi euro izanen dira.

# Lastailean langabezia %1,03 gora

**Aurreko hilaren akaberan 16 langabetu gehiago zeuden izena emanda Nafarroako Enplegu Zerbitzuan, guztira 1.564 sakandar; pasa den urtean baino 173 gutxiago**

Udako oporren ondorengo bigarren hilabetean langabeziak %1,03 egin zuen gora Sakanan. Lastaila akaberan lan bila zeuden 1.564 sakandarretatik %55,75 emakumezkoak ziren (872, 4 gehiago) eta %44,25 gizonezko (692, 12 gehiago). Adinari dagokionez, langabe sakandar gehienak 45 urte edo gehiago zituzten, %46,04 (720, 3 gutxiago). 25 eta 44 urte artekoen adin multzoa da hurrengo adin taldea langabetuen %43,29rekin (677, 19 gehiago). Azkenik, 25 urtez azpi-

koen taldea langabeen %10,68 da (167, berdin). Sakanan Nafarroako langabeziaren %3,33 genuen lastailean (herrialdearen %3,22 populazioa gara).

### Sektoreka

Langabe sakandarretatik %58,38k zerbitzuen arloan lan egin nahi luke (913, 18 gehiago). Industriarako eskaerak %26,92 dira (421,1 gehiago). Eraikuntzan aritzeko prest dauden eskaerak %5,75 dira (90, 8 gutxiago). Lehen sektorerako eskaerak %2,49 dira (39,3 gehiago). Azkenik, aurretik lanik egin ez dutenen multzoa %6,46 da (101,2 gehiago).



Langileak Ziordiko kaleak konpontzeko lanean.

### Kontratuak

Aurreko hilean Sakanan 728 kontratu sinatu ziren (94 eta %11,43 gutxiago). Haietatik %53,16k gizonen sinadura dute (387,45 gutxiago). Emakumezkoek kon-

tratuak %46,84 sinatu dute (341,49 gutxiago). Sinatutako kontratuetatik hasieratik mugagabeak zirenak %3,57 besterik ez ziren (26,4 gehiago). Lastailean barna mugagabe bihurtutako kontratuak

Herria	Langabetuak	Aldea
Arakil	50	1
Irurtzun	168	4
Irañeta	6	2
Uharte Arakil	49	2
Arruazu	3	1
Lakuntza	61	-9
Arbizu	79	9
Ergoiena	12	1
Etxarri Aranatz	151	0
Bakaiku	19	2
Iturmendi	22	1
Urdiain	26	-3
Altsasu	763	1
Olatzagutia	125	0
Ziordia	30	4
<b>Sakana</b>	<b>1.564</b>	<b>16</b>

%1,51 izan ziren (11,5 gehiago). Aurreko hileko kontratu gehienak, %94,92, aldi baterakoak ziren (691, 103 gutxiago). Nafarroan lastailean sinatu ziren 27.669 kontratuetatik Sakanan sinatutakoak %2,63 dira.



Raf Atxuri

**astekoa**

## Berlingoa bota zutenekoa

Harresia jakina. Eta harekin batera denbora laburrera Burdinazko Hesia. Gerra Hotzarenak berea egin zuen horrenbestez 1989ko azaroko gau batean. Gehien ustez beranduegi, beste batzuen iritziz bizkorregi eta taxubide txukunik gabe.

Munduak berrogeita bost urteko epe bati agur esan zion eta Berlin berriro ere XX. mendeko

historiaren agertoki. Gerora film sorta ederra etorri zaigu Ekialdeko Berlin gaitzat hartuta, "Good bye Lenin" edo "La vida de los otros" esaterako. Stasi-renak aztertu eta zabaldu dira lau haizetara. Ez zen normala hiri bat eta herrialde bat horrela zatitzea, baina gerra amaierak horrelakoak ekartzen dituzte maiz.

Ekialdeko alemaniarrek zer zioten, ordea? Zer hunkidura zetzan beren bihotz eta burmuinetan? Stasi-k gogor kudeatua beldurra, mesfidantza eta kontrola ziren nagusi. Sei biztanletariko bat gobernuaren informatazaila omen zen. Beren pobrezian duintasuna bilatzen zuten alde banatara Polonia/sobietak eta senide germaniarrak mailu

eta ingude zirela. Askatasun egarria ere nonbait xede premiazko.

Hala ere, ez dakit norainokoa izan zen askatasun nahia gehien astindu eta bultzatu zituen "ossie"ak. Azaroko gau hartan, baita lehenago ere, muga igaro zutenak zeren bila zebiltzan? Askatasun sozial eta politikoaren bila ala... kontsumoaren bila?

Aste batzuk geroago Ekialdeko Berlingo Silkek kontatzen zigun beren lilura eta xede nagusia produktuak zirela, erosgaiak, salkinak, erakusleio beteak.

Eta gu merkataletxe handi batean arratsaldea eman eta gero komunista ohi horiek zer jende mota merke eta kontsumozalea zen ebatzen genuen.

## barrutik kanpora

# Sakandar baten testigantza

Orain direla urte asko nire bizitza ezberdina zen. Zuen antzera, ilusioa eta etorkizuna nuen eta pisua erosi nuen. Laburbilduz, hobeto bizitzen nintzen. Orain dela denbora bat langabezian geratu nintzen; dirua sartzeari utzi eta egoera oso ezatsegin batean angertu nintzen. Herritar askok bezala, ezin nuen pisua ordaindu. Momentu berean pisua alokatzeko erabakia hartu nuen. Nire helburua argia zen: alokariaren diruarekin hipoteka ordainduko nuen. Baina dena tratatu zen maizterrak alokairua

ordaintzeari utzi zionean. Ez diot milaka bueltarik emanen gaiari, baina zera esan nahi dut: gatazka handien ondorioz alokairu kontratu hau apurtu zen, eta hipoteka ordaindu gabe, bankuarekin egoera ez zen bate ere ona. Momentu horretan eta ahotik aharako informazioari esker, HUTeren existentziak ohartu nintzen eta beraiekin kontaktuan jarri nintzen.

HUT hipotekengatik kaltetutako pertsonen eta boluntarioen palataforma bat da. Estatu osoan, Nafarroan eta Sakanan bai-

ta ere, dagoena. Oso azkar erantzun zidaten. Lehenengo bileran nire kasua kontatu nien, eta jarraitu behar nituen pausuen aholkua eta informazioa eskaini zidaten. Beraz, momentua iritsi zenean, erabaki bat hartzeko prestaturik nengoen eta "dación en pago" delakoa egitea hautatu nuen. Boluntarioek banketxera lagundu zidaten eta bertan eskaera egin genuen. Notarioaren aurrean sinatzeko ordua iristean, nire ondoan egon ziren.

Erabaki gogorra eta zaila hartu nuen, baina egingo ez banu,

egoera gaur egunean okerragoa izango litzateke, langabezian jarraitzen baitut, diru sarrerarik gabe. Baina, gutxienez, ez daukat zor bat arrastaka. Gaur egun ordaintzea ezinezkoa litzatekeena.

Sakanako plataformako boluntarioak beti gogoan edukiko ditut modu oso berezi batean, bai emandako informazioagatik, eta baita emandako laguntzagatik ere. Boluntarioek beren bizitza pribatuari denbora kentzen baitiote, nireak bezalako arazoak dituzten pertsonak laguntzeko.

Eskerrak eman nahidizkiet, bereziki, HUTeko boluntarioei, batez ere burutzen duten lanagatik. Familia handia osatzen dute, mundu osoarendako. Behintzat, niretzat, hala da. Eskerrak HUTari, Estatu osoan egiten ari den lanagatik, gaur egun "jenderik gabeko etxerik eta etxerik gabeko jenderik" ez egoteko.

Boluntario bihurtutako kalte-tua.

**Hipotekak kaltetutakoaren Plataforma**

## hara zer dien

# Afrikarrak gara, ez birus bat

Bai, afrikarrak gara. Gehiago, edo lehenago, PERTSONAK gara. PERTSONA afrikarrak, eta ez birus bat.

Zer izango da hurrengoa? Zer gehiago pairatu beharko dugu?

Ados. Etorkinak gara. Lan bila, bizi baldintza hobeen bila gure lurraldea utzi eta beste harrera gizarte batera iritsi ginen jende duina. Lan egiteko prest eta gogotsu dagoen jende duina gara.

Inoriezertxo ere kentzeko asmorik gabeko jendea.

Inongo laguntzaz probesteko asmorik gabeko pertsonak. Askok sinisten ez badute ere, lana eginez hobe baikaude gu ere.

Baina ez da erraza. Ez dugu bizimodu errazik, eta are gutxiago, ez dugu inola ere aurkitu amesten genuen "paradisua".

Oso alderantziz: traba, oztupo eta zailtasunak aurkitzen ditugu nagusiki. Jende asko eta askoren abegikortasuna, errespetua eta elkartasuna aurkitzen badugu ere.

Atzerritartasun legea bera, has-teko, lana aurkitzeko zailtasunak, hizkuntza ezberdina, bizibaldintza duinak -osasuna, hezkuntza, eskubideak, egoera juridiko-administratiboak...-lortzeko aldapa gorak...

Eta azken boladan gertatzen ari diren kontuak: ebola dela eta ez dela zelatuak sentitzen gara, gaizkileak bagina bezala.

Non gelditzen dira gure eskubideak? Edo ez al dugu ba guk eskubiderik?

Gu ez gara gizarteak gaur egun bizi duen krisiaren errudunak, inondik ere. Bestela oroitu: zer ginen egoera ekonomiko oparotan etorkinen premia zegoenean lanpostuak betetzeko? Birusa al ginen orduan ere?

Noiz izango gara pertsona bezala ikusiak eta tratatuak Europan? Eskubide eta betebeharrak berdinekin? Lau urtetik behin soilik? Hauteskundeak hurbil daudenean? Zenbaitetan orduan ere ez, azken aldirian demokrazia bide

hori gure kontra jotzeko ere erabiltzeko saiakera egiten ari baitira toki bat baino gehiagotan.

Toki guztietan denetatik izango den bezala, mesedez, ez gaitzazue denak zaku berean sar. Gure artean ere denetatik baitago.

Eta... EZ! EZ GARA BIRUS BAT. AFRIKARRAK BAIZIK.

**Immigrazio Zerbitzua**

**Guaixe**  

**ERREDAKZIO BURUA:** Alfredo Alvaro Igoa • guaixe@guaixe.net  
**ERREDAKZIOA:** Maider Betelu Ganboa  
**MAKETATZAILA:** Ainhoa Etxeberria Pikabea  
**PUBLIZITATEA:** Maria Saez de Albeniz • publizitatea@guaixe.net  
 eta Eneida Carreño Mundiñano • publi@guaixe.net  
**ERREDAKZIO LAGUNTZAILEAK:** Maialen Huarte Arano eta Eñaut

Arribengoa Apaolaza  
**ZUZENTZAILEA:** Maria Luisa Zelaia Mendia  
**ARGITARATZAILA:** Bierrik Fundazioa. Foru plaza 23-1. 31800 Altsasu • 948 564 275 • 948 562 107 • 618 882 675  
**KOORDINATZAILA:** Goizeder Anton Iturralde • bierrik@guaixe.net  
**DISEINU ZERBITZUA:** Guaixe Komunikazioa • Amaia Amilibia Salgado • argi@guaixe.net  
**ADMINISTRAZIOA:** Gixane Andueza Goikoetxea

**LEGE GORDAILUA:** NA-633/1995  
**TIRADA:** 3.200

**LAGUNTZAILEAK:**

**Mank**  
 s a k a n a

**BAZKIDEAK** 

**EUSKO JAURLARITZA**  
**GOBIERNO VASCO**  
 HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA  
 ETA KULTURA SAILA  
 Hizkuntza Politikako Salburuordetza

## SAKANA

## Euskaltzaleak saretzen hasiak

**Sakanako Euskalgintzako Bilgunearen talde eragileak ilbeltzaren 31ko bilerara deitu ditu ibarreko euskaltzaleak eta euskalgintzako eragileak.**

Euskalgintzako eragile eta euskaltzale sakandarrak larunbatean Etxarri Aranatzeko egiteko bilera batera deituak zeuden. Bierrik, AEK, EHE, udalgintzan ari direnak eta norbanakoak elkartu ziren. Sakanako euskalgintzaren diagnostika egin zuten eta hizkuntzaren normalizazioan eragileek elkarren berri izateko eta Sakanako ikuspegi orokorra izateko beharra nabarmendu zuten.

Horri konponbidea emateko Sakanako Euskalgintzaren Bilgunea sortzeko talde eragilea sortzea erabaki zuten. Ibarrean euskararen alde lanean ari diren beste erakundeekin, eragileekin eta sakandarrekin harremanetan jarriko dira eta egitasmoaren berri emanen diete. Asmoa da ilbeltzaren 31n batzar zabal bat egitea.

## Ardatzak

Eneka Maizek azaldu digunez, bileran zeuden erakundeek beren egoeraren eta dituen erronken berri eman zuten, indargune eta arazoekin batera. Maizen esanetan, "agerian gelditu zen elkarren berri izateko asko falta zaigula eta saretu beharra dugula, lan osagarria egiten ari baikara euskalgintzako eragileek". Diagnostiko orokorra egin zuten, ilbeltzerako jarraitu beharreko ildo zehaztapena utziz.

Nabarmendu zen bestea: "Sakanan erritmo, intentsitate eta lanke-ta ezberdinetan ari gara azpi eskualdeetan eta lotura bat sortzea beharrezko jo genuen". Maizek esan digunez, "arroz arlo erreparatuta, dauden eragileak eta egiten ari diren lana kontutan hartuz gero, euskalgintza Sakanan sendo dagoela ondorioztatzen genuen. Baina eragileen arteko elkarlana eta ikuspegi orokorra falta dela agerian gelditu zen".



Euskarazko hedabideen alde hainbat euskaltzalek egindako agerraldia. ARTXIBOA

Maizek aurreratu digunez, Sakanako euskalgintzaren sare horrek bi elkargune lituzke. Bata, birtuala, "harremanetan egon, gutxienez informatzeko eta elkarren berri izateko. Eta edozein gauza sortzen dela, deialdia egiteko". Eta fisikoa bestea: "egoki iku-

si zen guztiak elkarrekin urtean bizpahiru alditan edo elkartzea; analisi orokor bat egiteko, eta zenbait ildori elkarrekin heltzeko".

Larunbatean elkartu zirenek bilgune berriaren eta Mank-en Euskara Batzordearen arteko bikoizketarke zuten ikusi, azken

horren lan esparrua tokiko erakundeena dela argudiatuz. "Arlo instituzionala kontutan hartu beharko dugu, baina bilgune berria gizarte eragileak eta herritarrak biltzeko da". Horregatik, Maizek euskaltzale eta euskalgintzako eragileei parte hartzeko deia luzatu die.

## &gt;&gt; Arakil

## Udal eraikinak energia berriztagarriarekin

**Udaletxean eta Itxasperriko ermitan Goienarren argindarra erabiltzen da, udalak hornikuntza enpresaz aldatu ondoren**

**Gaur, 19:00etan Izurdiagako elkartean Goienar eta Sustrai Erakuntzako kideek azalpenak emanen dituzte**

Hitzetik ekintzetara pasa da eta %100ean ziurtagiridun energia berriztagarria eskaintzen du Goienar kooperatiba enpresara pasa da Arakilgo Udala. Ruben Goñi Urroz alkateak esan digunez, orain arteko prezio bera ordainduko dute zigilu berdeko energiagatik. Kooperatiba irabazi asmorik gabeko erakundea dela azpimarratu du alkatea. Goñik argitu digunez, "udalak ez du azpiegitura handirik. Kontzejuek dituzte argiteria

publikoko eskumenak eta haiek dute kontsumo handiena". Enpresaz aldatzeko arrazoiak gaurko hitzaldian azalduko ditu udalak. Aldi berean, informazioa zabalduz kontzejuek eta arakildarrek energia berriztagarriko aldaketa egitera animatu nahi dituzte.

Energia burujabetza lortzeko Sakanan energia ura edo haizearen bidez ekoiztu daitekeela aipatu du Goñik. "Biomasa azaltu gabe". Energia etorkizuneko erronketako bat izanen dela azpimarratu du. Hori dela eta, gaurko hitzaldian ere Sustrai Erakuntza fundazioko kideek ere hitza hartuko dute. Nafarroako energia burujabetza lortzeko prestatu duten txostena aurkeztuko dute.

## SAKANA

## Errigorak 412 eskaera jaso ditu

**Euskal Herri guztian 12.000 saski inguru izanen dira Errigorak banatuko dituenak. Haietatik 151.000 euro Erriberako euskalgintzara bideratuko ditu.**

Nafar hegoaldeko uzta jasotzen duten 412 zere banatuko ditu aurki Errigorak Sakanan 25 banaketa punturen bidez. Erriberako lehen sektoreko produktuz osatuta dagoen saski horren truke eskatzaile bakoitzak 50 euro ordaindu ditu. Errigorak auzolanean egindako kanpainaren irabazien laurdena Erriberako euskarari putzegin eta aurrera egin dezan bideratuko du. Kanpaina Zazpiak Bat, Sortzen, AEK, Ikastolen Elkarte eta Errigoraren elkarlanaren fruitu da.

Errigorako zereak hornitzen dituzten ekoizleen kopuruak joan den urtetik bikoiztu egin dira. Saskien eskaera handiagoa izate-



Errigorako kideak eta lagunduko dituzten proiektuetako ordezkariak. UTZITAKOIA

ak ekoizle gehiagorengana zabalteko aukera eman du. Ekoizleak aukeratzeko Errigorak irizpide hauek izan ditu kontuan: enpresa txikiak, langileen baldintzak zaintzen dituztenak, tokian tokikoa lehenesten dutenak, kalitate bikaina...

## Lagunduko diren proiektuak

Tuterako Argia ikastolaren finantza egoera xamurtzeko, Erriberako AEK-k ikasleendako beka sistema martxan jartzeko eta Euskaraz Bizi eta Ikaski ekimenaren Hamarraz ekimena aurrera ateratzeko.

**MAPFRE**  
ALTSASU

**KOTXE**  
aseguroak

**%50**  
\*arteko deskontua  
\*Kontrafazio berrientzat

INFORMAZIOA GURE BULEGOAN

**4 gurpiletan**  
**segurtasun**  
**osoa**

JOSE ANTONIO IMAZ PRIM

948 563 354 · jimazpr@mapfre.com  
San Juan 52 behekoa · ALTSASU

**Arbizu**  
Hesteki eta pateak

**www.embutidosarbizu.com**  
Utzubar Industrialdea, E kalea 1-2 · ARBIZU tel. 948 46 06 28 fax. 948 46 10 16

COQ D'OR  
Guide des Gourmands

## » Lizarraga



Auzatea ere izanen da San Klementetan. ARTXIBOA

## San Klemente ospatzera

Guztai prest da Lizarragan udazkeneko festak ospatzeko. Gaur hasiko dira festak, gazteen afariarekin.

Bihar haurrendako jolasak eta herri afaria izanen dira. Etzi, besteak beste, adinduak omenduko dituzte.

### Lizarragako San Klementeak 2014

» Azaruek 21, ostigela  
21:00etan Gazte Poteoa.  
22:00etan Gazte Afaye.

» Azaruek 22, laurbeta  
11:00etan Kalejire Amalur taldearekin.  
11:30etik 13:30era Haur jolasak.  
13:00etan Meza nausiye.  
16:30etik 19:30era Haur jolasak.  
19:30ean Txokolatada.  
21:00etan Zezensuskoa.  
22:00etan Herriko afaye frontonien.  
24:00etan Trikidantz.

» Azaruek 23, iyendie  
14:00etan Puzgariyek haurrendako.  
12:00etan Kalejire Amalur taldearekin.  
13:00etan Meza nagusiye.  
14:00etan Auzatie eta zaharrei omenaldiye Herriko Etxen.  
17:00etan Nesken Pala Txapelketa.  
Benjaminak: Maria-Olaia / Maddi-Maialen  
Kimuak: Luzia-J. Atxa / Izaro-Irantzu  
Haurrak: Naroa Lasa-Ane Eskala / Oihane-Irati  
Gazteak: I. Lasa-Garazi / Andrea-Uxue  
18:30ean Briska eta Mus Txapelketa.

## » Lakuntza

## Lakuntzako Pertza elkarteak 50 urteak ospatzera

50. Bazkide Eguneko ospakizunetan bazkide sortzaileak omenduko dituzte

1964. urtean sortu zuen Lakuntzako Pertza elkarteak Lakuntzako lagun koadrila batek. Hasieran Amio etxean izan zuen egoitza, eta beranduago gaur egungo tokira, Larraina kalera, lekualdatu zen. Aspaldiko istorio batengatik barre egiten zieten lakuntzarrei, Asulbizio festara San Migelera bidean zihozela asto gainean zeramaten pertza erori, egositako tripota batek Uharteko erro-tariari begian jo, eta betoker geratu zela zioen istorioagatik. "Lakuntzako pertzak ze fin ein zuben?" egiten zieten buria lakuntzarrei. "Zuben aitek eta amak izan zubena" lakuntzarren erantzuna. Elkarteak sortzerakoan zein izen jarri eta Lakuntzako Pertza jartzea erabaki zuten, burlari buelta emateko. Horretaz gain, Lakuntzako Pertza festa ospatzen hasi ziren 1967. urtean, Aralarko erromeria, asto, tripota, pertza eta guzti.

Egun ia 500 bazkide ditu Lakuntzako Pertza elkarteak, eta Jesus Andres Alegria da lehendakaria. Egoitza handia da. Hiru pisu eta sotoa hartzen dituen elkarteak da



Lakuntzarrek, atzera ere, elkarteak beteko dute. ARTXIBOA

Lakuntzako Pertza, duela gutxi berri zena. Lakuntzako Pertza egunaz gain, San Saastinetan daborrada antolatzen du elkarteak duela 24 urtetik hona, eta herriaren alde lan egiten dutenei oherrezko txanoa ematen die. San Saastin eguneko auzatea ere elkarteak antolatzen du, eta abuztuko festetan auzate bat ere prestatzen du. Horretaz gain, Bazkide Eguna antolatzen du urtero, eta beste hainbat ekitaldi. Aurtengo Bazkide Eguna, jakina, berezia izango da. Afariaren ordezkariak bilduko dira bazkideak, eta data seinalatua denez, bikotekideak bazkarian egoteko aukera izanen dute. Bazkal aurreko trikitixa emanaldia bazkideek eskainiko

### Lakuntzako Pertza Elkarteak 50. Bazkide Eguna. Egitaraua

12:00etan Hildakoen aldeko meza.  
13:00etan Trikitixak.  
15:00etan Bazkaria elkartearen.  
17:00etan Dantzaldia.  
19:00etan Gazta eta ardoa. Nafarroako Goma Gaineke Sokatira Txapelketa, Gizonezkoena eta Mistoa, pilotalekuan.

\*Oharra. Trikitixa eta dantzaldia eskainiko duten musikariak 105, 414, 373, 489, 139, 678, 423, 588, 648, 519, 506, 169, 656, 661 eta 467 zenbakidun bazkideak dira.

dute, eta baita bazkal ondorengo dantzaldia ere. Jakina, omenaldietarako tartea ere izango da, elkarteak sortu zuten bazkideak omenduko dituztelako.

## » Altsasu

## Gozamenez Gauen egitaraua bi tabernetan

Gaur, 22:30ean Ipuin erotikoa Gautxori tabernan eta 23:45ean La Chula Potraren kontzertua Arkangoan

Gozamenez Gauak egitaraua gaur bi emanaldirekin despidituko da. Kontu-Kantoinarratzailea eta margolaria ipuin erotikoen narrazioa eginen du Gautxori tabernan. Eta hura despiditzerakoan Iruñeko

raperoak bere doinuak zabalduko ditu Arkangoan tabernan.

Gazteei zuzendutako programa da Gozamenez. Sexualitatea propio eta begirune osoz adierazi nahi du eta, horretarako, ikuspegi positibo, plural eta aberasgarri bat du abiapuntua. Azaroko Gozamenez Gauak egitarauko

jarduerak gazte altsasuarrak proposatutakoak izan dira. Sakana Gozamenez Batzordeak Altsasuko Udaleko Gazteria Zerbitzua- ren, Iruñeko Gozamenez Batzordearen eta Osasunbidearen laguntzaz gazte altsasuarrak gaurko emanaldietara gonbidatu dituzte.

## » Altsasu

## Jaki bilketarako boluntarioen bilera

Ostegunean, 17:00etan Xabier zentroan

Azaroaren 28an eta 29an Nafarroako Elikagai Bankuarendako jakiak jasoko dira herrialde guztian. Altsasan bi egun horietan jakiak biltzeko dozena bat pertsona behar dira. Egun bakoitzean binakako hiru txanda eginen dira BM, Dia, Eroski Center eta Eroski City establezimenduetan. Premia gorrian daudenen aldeko jaki bilketan parte hartu nahi dutenek osteguneko bilerara joanedo Jose Sebastian Hualde Urrea, Txan, apaizarekin harremanetan jarri behar dute.

## » Irurtzun

## Berrerabilpenetik elkartasuna

Arropa, liburu, jostailu, disko, elektresna eta abarrei bigarren aukera bat eman zien Itxipuru taldeak igandean. Bigarren eskuko azokan eskuragarri jarri zituen eta makina bat sakandar izan ziren Biaizpe pilotalekutik mauka bila pasa zirenak. 1.500 euro inguru eskuratu zituen Itxipuruk Senegalgo Sally-Velingara herriko mediku kontsultategi-amaetxea konpontzeko. Itxipuruk, ohikoa duenez, lagunduko duen proiektuaren aldeko elkartasun afaria ere antolatuko du. Abenduaren 5ean izanen da, Pikuxarren. Izen ematea asteburuan zabalduko da.

## » Altsasu

## Eguberritan: Dibertigarria, Bateragarria

Gaurltik ostegunera arte eman daiteke izena 012 telefonora deituz edo [www.alsasua.net](http://www.alsasua.net) atarian

Ikastetxeetako oporrak direla eta hainbat familiatan lana eta familia ardurak, seme-alaben zaintza esaterako, uztartzeko zailtasunak sortzen dira. Horregatik, eguberri begira Altsasuko Udalak txikiek eta behar bereziak dituzten gazteak oporrak lagunekin pasatzeko Dibertigarria, Bateragarria programa martxan jarriko du. Jolas, jardura eta tailerrez osatutako eskaintza egin du abenduaren 22, 23, 24, 26, 29, 30 eta 31n eta ilbel-tzaren 2,5 eta 7an.

Esperientzia duten begiraleekin ariko dira 3 eta 12 urte bitarteko haurrak alde batetik eta, bestetik, behar bereziak dituzten 12 urtetik gorako gazteak. Lehenak ludotekan ariko dira eta bi ordu-tegi dituzte aukeran 8:30etik 13:30era (33 euro) edo 11:00etik 13:30era (17 euro). Bigarrenak, berriz, Intxostiapunta gazte gunean elkartuko dira, 17:00etik 20:00etara (33 euro). Udalak hainbat hobari zehaztu ditu, udalaren web orrian ikusgai daudenak.

## » Aizkorbe / Irurtzun

## Plazaolako ibilbidea zehaztuta

Irurtzungo, Arakilgo eta Itza Zendeako ibilbideko 9,5 km-etako zatia da 85 km-ko bide berdean

Plazaola trenaren ibilbidea baliatuz Iruña eta Donostia arteko bide berdea egiteko asmoak aurrera segitzen du. Nafarroako Gobernuak atzokinarazi zuen Irurtzun eta Saratsa arteko tartea zehaztuta dagoela, ukitutako ondasun eta eskubi-deak desjabetzeko prozedura despidituko baita. Irurtzunen udalari bidea diren 5.539 m<sup>2</sup> desjabetuko dizkiote. Aizkorben guztira 9.480 m<sup>2</sup> desjabetuko dituzte, aurreikusitakoa baino 821 gutxiago.

## » Arakil

## Udalak hiru baso aprobetxamendu enkante bidez saldu nahi ditu

Arakilgo Udalak Aizkorben eta Errotzen dauden baso aprobetxamendu bana enkante publiko bidez saldu nahi ditu. Aizkorbea Goiko mendian eta Iturberrietan dermian dauden 7.005 larizio pinu dira. 1.474,9 m<sup>3</sup> zur eta 1.019 m<sup>3</sup> egur kubikatu dute. Haiengatik Arakilgo Udalak 32.208,45 euro eskatzen ditu.

Errozko mendian handian eta txaparral dermian dauden larizio pinuen bi lote saldu nahi ditu ere Arakilgo Udalak. Aurrena 1.191,5 m<sup>3</sup> zur eta 2.511,9 m<sup>3</sup> egur egiten dute. Bigarrenak, berriz, 562,1 m<sup>3</sup> zur eta 229,3 m<sup>3</sup> egur kubikatu dute. Biengatik 47.315,85 euro eskatzen du udalak. Bi herrietako baso aprobetxamenduetatik eskaintzak aurkezteko epea azaroaren 27an despiditenda.

## » Urdiain

## Lote enkantean

Urdiaingo Udalak Maubia dermian dagoen zuhaitz lote bakarra enkante publiko bidez saldu nahi du. 1.702 pagok osatzen dute lotea. 677 m<sup>3</sup> zur eta 1.984,7 m<sup>3</sup> egur kubikatu du. Udalak 41.426,18 euroko hasierako prezioa jarri dio loteari (BEZ kanpo). Eskaintzak herriaren etxean aurkeztu daitezke abenduaren 15era arte.

## » SAKANA

## Popularrak eragile ekonomikoekin bildu dira

PPko Sakanako Eskualde Batzordeko buru eta Etxarri Aranatzeko zinegotzi den Juan Antonio Extremera Sakanako Dendarien Elkartearekin eta ibarreko sindikatuekin elkartu dela azaldu du. Jakinarazi duenez, zinegotzi popularrak ibarreko denda txikien aldeko mozioak aurkeztuko dituzte udaletan. Industria jardunari bultzada emateko eskaerak jasotzen dituzten mozioak aurkezteko asmoa ere aurreratu du Extremerak.

## » Etxarri Aranatz

## Hondakinen inguruko kontsultarako galde-sortak plazan

Gaur, 19:30etik 21:00etara; etzi, igandean, 13:00etatik 14:30era eta etzidamu, astelehenean, 10:30etik 13:00etara

Etxarri Aranatzko Udalak indarrean dagoen hondakin sistema berriaren inguruan etxarriarrek duten iritzia ezagutu nahi du. Horregatik, espezialdutako enpresa baten laguntzaz galdetegi bat osatu du. Etxarriar guztiei galdetegi erantzuteko eskaintza egin die udalak. Galde-sortak udalaren web orrian, [www.etxarriaranatz.com](http://www.etxarriaranatz.com) weborrian eskuratu daitezke. Bestela, interesatuak udaletxetik (10:00etatik 14:00etara) edo liburutegitik (16:30etik 20:30era) pasa daiteke astegunetan. Etxarriarrei galde-sortak eskuratzeko erraztasuna emateko udalak erabaki du asteburuan eta astelehenean plazan informazio mahaia jartzean eta han galde-sortakeskuragarri jartzea. Erantzunak azaroaren 30era arte eman daitezkeela ere oroitarazi du udalak.



### SAKANA

## Natur parkeko ibilbideetan konponketak eginen dira

Mendizaleen, artzainen, iturrien eta Morterutxo ibilbideetan eginen ditu konponketak Landa Garapen, Ingurumen eta Lurralde Antolaketa Departamentuak. Naturak eragindako kalteak direla, eroritako zuhaitzak edo adarrak direla, ibilbide horietan kalteak sortu dira, besteak beste, itxurak hautsi dira. Seinalez tapenari ere errepasatzen beharra sumatu dute gobernuko arduradunek.

Lan horiek departamentuak Caixaren lankidetzarekin batera eginen duen 10 ingurumen proiektuetako bat da. Haien bidez gizarte bazterketa arriskuan dauden 40 pertsonen lan egiteko aukera izanen dute. Helburua, beraz, bikoitza da: natur espazioak hobetzea eta gizarte sartzeari babestea.

## » Altsasu

## Hemen da Asiako erlamina

Geltoki auzoko zuhaitz baten, platan baten puntan, joan den aste-ko ostegunean ikusi zuten Asiako erlamin baten habia. Hijos de Goikoetxea edari banaketa enpresan dago habia, 15 bat metroko altueran. Udazkenarekin batera, hostoak erortzean, agerian gelditu da habia.

Leocadio Goikoetxeak esan digunez, prentsan Asiako erlezta-rraren habi baten argazki bat ikusi

### Asiako erlaminaz gehiago jakiteko

[www.apidena.org/index.php/eu/asiako-liz-torra](http://www.apidena.org/index.php/eu/asiako-liz-torra)

sia zuten eta badakien ez espezie hori eta beste intsektu polinizatzaile batzuekiko arriskutsua dela, Altsasuko Udala jakinarenean gainean jarri zuten.

Nafarroako Gobernuak ordezkari batek ostiralean baieztatu



Atzo oraindik gobernuak ez zuen erlezta-rraren habia kendu.

zuten Geltoki auzoan dagoena Asiako erlamin baten habia dela. Habia aktibo dagoela ere. Hura nola jai-

tsi aztertzen ari dira. Habiaren azkena kontrolatutako erreketak izanen da.

## »

## «Ikurren inguruan altsasuarrek erabaki behar dute»

**Altsasuko eragile politiko, sindikal eta gizarte arlokoek ikurren alde agertu dira Nafarroako Auzitegi Gorenak Altsasuko Udalarari ikurrina kentzea eskatu eta gero**

Ikurren Legeak Espainiako bandera udaletxean jartzera behartu ondoren, otsailaren 23an Geure Ikurren Alde ekimenak Zelai kalean Altsasuko eta Nafarroako banderak eta ikurrina jarri zituen masta bakoitzean. Orduan esan zuten, "bandera hauek ez dira kolektibo, instituzio ezta pertsona batenak ere. Banderak hauek herriak jarri ditu eta herriaren dira". Gaur emandako prentsaurrekoan ideia bera errepikatu dute ekimenetik.

Ikurrina kentzeko eskaera Nafarroako Gobernuak eraman zuen auzitegira. Gaurko prentsa-



Asteleheneko alderdi, sindikatu eta mugimenduetako kideen agerraldia.

rrekoan UPNren jarrera antidemokratikoa salatzen dute: "gureak ez diren sinboloak inposatzen saiatzen den bitartean, gure ikurren

eta sinboloen kontrako erasoak eta kriminalizazio kanpainak burutzen dituzte". Zelai kaleko ikurren inguruan, "altsasuarrei soi-

lik dagokigu erabakitzea zer egingo dugun ikur hauekin".

Geure Ikurren Alde ekimenaren prentsaurrekoan, Sortu, Geroa Bai, Aralar, LAB eta herri mugimenduko hainbat ordezkari izan dira, ikurrinaren presentziari babesa azaltzen.

### Deiak

Ostiralean, 20:00etan, Burunda pilotalekuan herri batzarra deitu dute, "UPNren erasoari herri bezala nola erantzun erabakitzeko". Aldi berean, Zelai kaleko masten ondoan, ostiralera arte, salaketa eta informazio gune iraunkorra sortu dute. Altsasuarrak guretik pasatzera gonbidatu dituzte. Baita astean zehar eginen diren jardueretan parte hartzeri ere.

### SAKANA

## Udalak Sakanako Garapen Agentziara atxiki da

Altsasuko Udalak aurtengo aurrekontuan Sakanako Garapen Agentziarako (SGA) 41.000 euroko diru saila onartu du. Udalak atzo agentziara atxikitzea bideratzea erabaki zuen. Aurreko bilkuran Geroa Bai ko Unai Hualdek SGArako kontrol neurri gehiago eskatu zituen eta, horregatik, udaleko gainontzeko taldeei heldu den urterako SGA-

ren funtzionamendu proposamena aurkeztu die. Altsasuko alkate Garazi Urrestarazuk kontrol neurriak badaudela azaldu zuen: "SGAko aurrekontua udalaren onartu ondoren onartzen dira. Aldi berean, Altsasuko Udalak SGAREN administrazio kontseiluan eta Sakanako Mankomunitatearen batzar orokorrean ordezkariak ditu".

### Tasak

Altsasuko Udalak atzoko bilkuran heldu den urterako tasa publikoak bere horretan mantentzea erabaki zuen. Ordenantzei dagokienez, Udaltzaingoak egindako proposamenari jarraituz, udalak berri bat onartu zuen: utziak dauden eta kalean dabilzan animaliak jasotzeko eta mantentzeko tarifak zehaztu ziren (24 euro jasotzeagatik eta

6 eguneko mantenuagatik).

Bestalde, Dantzalekuko atletismopisten erabilera gatik ordaindu beharrekoa zehaztu zen. Ataboko bazkide direnek dohainik erabili ahalko dituzte. Argia piztu beharra badago, gutxienez 10 pertsona beharko dira. Bazkide ez direnek 1,65 euro ordaindu beharko dituzte. Hileko txartelak 8,25 euro balio du, urtekoak, berriz, 44,3.

**Kaixo**  
Kafetegia - Jatetxea

JATETXEA - RESTAURANTE - KAIXO - BAR-CAFETERIA

GARCIA XIMENEZ 20-22  
948.46.91.24 ALTSASU  
[www.restaurantekaixo.com](http://www.restaurantekaixo.com)

**LARRAZA**  
ADMINISTRACIÓN DE FINCAS

**Jose Larraza Legarra**  
Etxebizitza administratzailea  
Kolegiatu zenbakia: 378

Bizilagunen komunitateak  
Etxebizitza administrazioa

Etxaburua kalea, 1 beheko solairua  
31013 Berriozar  
Telf.: 948 065 570 Faxa: 948 063 634  
[Jose.larraza@gmail.com](mailto:Jose.larraza@gmail.com)

**Pix, Popo & Marnots**

**TXO, MIKMAK TXIKIA**

**Abenduaren 3an, 17:00etan**  
**Irurtzungo Kiroldegian**

**Sarrerak 6 €**  
Martxuetan eta Pikuxarren salgai


## SAKANA

# Plan Estrategikoak talde parlamentarien babesa jaso du

**Nafarroako Gobernuari aurkeztuko zaio orain, Sakanan adostutakoa aurrera ateratzeko gobernuaren partehartzea eta inplikazioa zehazteko**

Sakanako Plan Estrategikoa aurrera eramateko Nafarroako instituzioen inplikazioa ezinbestekoa da, eta horregatik prozesuaren sustatzaileen ordezkaritza batek talde parlamentari guztiekin bilera erronda hasi du. Sakanako Mankomunitateko presidente Aitor Karasatorre Muguruzaren azalpena da.

Horregatik, bera eta plana mamitzen izandakoen ordezkaritza bat aurreko astean eta honetan Nafarroako Parlamentuan ordezkaritza duten taldeekin elkartu dira. egon dira. Pasa den astean UPNko Coro Gainzari, PPko Ana Beltrani eta Izquierda-Ezkerrako Txema Mauleoni eman zieten planaren berri. Aste honetan despiditu dute erronda PSNko Carmen Otxoa, EHBilduko Txentxo Jime-



Sakanako ordezkariak aste honetan, atzera ere, Parlamentuan izan dira.

nez, Juan Carlos Longas eta Bittor Rubio eta Geroa Baiko Manu Aierdirekin elkartu ondoren.

## Aitortza eta lehentasunak

Guztiek Sakanan egindako lana aitortu dutela jakinarazi digu

Karasatorrek, eta "elkarlanerako borondatea eta laguntzeko prestutasuna agertu dute". Parlamentuko taldeen babesa lortu ondoren ibarreko ordezkariak Nafarroako Gobernuarekin harremanetan jarriko dira. Karasatorrek argitu

digunez, "hurrengo pausoa, Sakanan adostutakoa aurrera ateratzeko gobernuaren partehartzea eta inplikazioa zehaztea izango da".

Plana egiten parte hartu zuten eragileen eta erakundeen ordezkariek osatzen duten Planaren Garapen Lan taldeak lehentasun batzuk zehaztuak ditu. "Baina denok argi dugu Plan Estrategikoaren ezauzgarrietako bat malgutasuna dela eta izan behar duela" azaldu digu Karasatorrek. Horren arrazoieta-ko bat egoera ekonomikoak jarritako baldintzak dira. "Horregatik, lehentasunak finantziarioaren arabera ezarriko dira, beharren eta aukeren arabera" gaineratu du Mank-eko buruak. "Hala ere, oraingoz, dinamizazio programak indartu eta ugaritzea litzateke lehentasuna, Plan estrategikoaren ezauzgarri nagusia elkarlana izanik, prozesu horiek indartzeko beharrezkoak baitira".



Sakabanaketa salatzen.

## Presoek sakabanaketa auzitegian salatu dute

Euskal Preso Politikoen Kolektiboko (EPPK) abokatuek Espainiako Auzitegi Nazionaleko Zaintza Epaitegian sakabanaketaren kontrako eskaerak aurkeztuko dituzte. Aipatu epaitegiaren ardura da presoaren eskubideak betearaztea. EPPKko kideen abokatuek preso bakoitzaren izenean sakabanaketak urratzen dituen eskubideak zein diren zerrendatu diete epaileei, besteak beste: defentsa, osasuna, kultura eta hizkuntza, berdintasuna edota arrazoi politiko edo ideologikoengatik diskriminatuta ez izatea. Abokatuak Estraburgoko auzitegiraino iristeko prest azaldu dira.

Negu akaberan hasi ziren EPPKko presoak, txandaka, euren espetxeko tratamendu batzordeetan sakabanaketa bukatzeko eta Arabako Zaballa espetxera edo etxetik gertuenera aldatzeko eskariak aurkeztu. Erantzuna jaso dutenek ezeko jaso dute, banakako erantzuna izangabe. "Erantzunak erabaki politikoak baldintzatuak izan dira, ez diete oinarritzko eskubideei erreparatu", adierazi dute abokatuak.

## TXANDAKA

EPPKko presoek oraingoan ere eskaerak mailakatu egingen dituzten. Lehen txandan gaixo dauden presoak, 70 urtetik gorakoek eta espetxean 20 urte baino gehiago daramaten presoek egingen dute eskaera. Azken horien artean dago Unai Parot Navarro. Negu eta udaberriko txandak errepikatuta, laugarren eskaera txandan Asier Carrera Arenzana, Luis Mariñelarena Garzandia eta Juan Ramon Karasatorre Aldaz etxarriarrek eskatuko luke. Bosgarren txandan, berriz, beste hiru etxarriar izanen lirarete: Juan Kruz Maiza Artola, Oihan Barandalla Goñi eta Hodei Ijurko Iroz.



# Bidelagun elkarteak turismo eragile guztietara zabaldu da

**Alojamendu elkarte hutsa izateari utzi eta turismoarekin lotutako eragileek ere tokia izanen dute**

Aurreko asteko ostegunean elkartu ziren Bidelagun elkarteko kideak eta erakundea eraldatzea erabaki zuten. Alfonso Nuin Cartujok azaldu digunez, "ibarreko eragileak elkarrekin aritu eta Sakanan turismoa mugitzea da asmoa. Denen artean turismo paketeak sortzeko, esaterako".

Sakanako turismo eragileen aurrean aurkeztuko du bere burua elkarteak hurrengo egunetan. Gaur egun alojamenduen arloko 18 kide ditu elkarteak. Nuinek argitu digunez, "gehiago ere izan dira, baina krisiaren eraginez kide batzuk baja eman dute". Nuinek



Bidelagun elkarteko zuzendaritzako kideak mahaiaren aldeetan, kide batekin.

turismoan ari diren eragileen profesionaltasuna aldarrikatu du: "konpetentzia handia dago eta jen-

deak gauzak ongi nahi ditu". Hilaren 13an despiditu zen due- la urte pasa hasitako bidea. Saka-

## Zuzendaritza berria

Alfonso Nuin, lehendakaria (Hiriberri, landetxea); Daniel Torrente, lehendakari ordea (Lakuntza, jarduera enpresa); Arantza Etxeberri, diruzaina (Zuhatzu, landetxea) eta Iñaki Urrestarazu, idazkaria (Altsasu, jatetxea).

## Harremanetarako

[www.sakanaurbasa.com](http://www.sakanaurbasa.com)

nako garapen agente Iker Mantrolarekin biltzen hasi ziren Bidelagun elkarteko kideak. Turismo arloan aritzen ziren Sakanako agenteak elkar ezagutzen ez zutela agerian gelditu zen. Bilera haietako hausnarketetatik sortu zen Bidelagun elkarteak alojamenduetaz aparte turismo zerbitzu, artisauek, jatetxe eta abarretara zabaltzea.



# Udalek bakoitzak Mank-i egindako ekarpenak

Altsasuko Udaleko bilkuretan behin baino gehiago kezatu izan da alderdiren bat Sakanako Mankomunitateari egindako ekarpena gehiegizkoa zela esanez. Sakanak Mankomunitateak udalengandik jasotzen duen diru ekarpenen berri eman nahi izan du, izan zitezkeen zalantzak argitzeko. Datuek erakusten dutenez, herriek zenbat eta populazio handiagoa izan orduan eta gutxiago ordaintzen dute biztanleko.

Udala	Biztanleak	Populazioaren %a	Diru ekarpena*	Ekarpenaren %a	Euro biztanleko
Altsasu	7.711	37,05	268.409,76	35,86	34,81
Etxarri Aranatz	2.496	11,99	88.997,49	11,89	35,66
Irurtzun	2.300	11,05	82.312,63	11,00	35,79
Olazti	1.627	7,81	58.585,43	7,83	36,01
Lakuntza	1.277	6,13	46.648,17	6,23	36,53
Arbizu	1.099	5,28	40.577,22	5,42	36,92
Arakil	959	4,60	35.028,76	4,68	36,53
Uhartea Arakil	851	4,08	31.345,26	4,19	36,83
Urdiain	698	3,35	26.126,97	3,49	37,43
Ergoiena	406	1,95	15.394,33	2,06	37,92
Iturmendi	390	1,87	14.848,63	1,98	38,07
Ziordia	372	1,78	14.234,71	1,90	38,27
Bakaiku	331	1,59	12.836,35	1,72	38,78
Irañeta	172	0,82	7.413,42	0,99	43,10
Arruazu	120	0,57	5.639,89	0,75	47,00
<b>Guztira</b>	<b>20.809</b>	<b>100</b>	<b>748.399,02</b>	<b>100</b>	

\* Ur kontsumoagatik ordaindu beharrekoa ez dago gehituta.

## Fernandez de Garaialde Aralarko zuzendaritzan

Larunbatean Aralar alderdiak seigarren kongresua izan zuen. Aralar kideek estatutu berriak eta txosten politikoa onartu zituzten. Horrekin batera Rebeka Ubera aukeratu zuten Aralarreko idazkari nagusi. Alderdiko zuzendaritza berriko kideak ere aukeratu zituzten. Horien artean Asun Fernandez de Garaialde Lazkano altsasuarra dago.



## » Etxarri Aranatz

**%60ko ur galera****Biltegitik ateratzen den ur kopuru guztia ez da iturrietara iristen**

Etxarri Aranazko Udalak jakinarazi duenez, ur kontsumoagatik fakturatuena duena eta ur biltegitik ateratzen den ur kopuruaz da bera. Urte hasieran udalak ur biltegiaren kontrol telematikoa jarri zuen eta horrela jakin ahal izan du handik ateratzen den uraren %40 besterik ez duela fakturatu. Ur-ihesak izan daitezke %60ko galera horren arrazoia. Udala ur sarea sektorizatzea edo kontrol telematikoko kontagailuak jartzearen moduko irtenbideak aztertzen ari da, ur-ihesak non dauden jakin ahal izateko. Altsasun ere antzeko dabil.

## » Altsasu

**Hiru ikasle Bartzelonako Confint topaketa**

**Maite Martinez (Aralarko Mikel donea institutua) eta Imanol Lobo eta Xabier Ruiz de Arbulo (Sagrado Corazon ikastetxea) izan dira Confint topaketan Nafarroa ordezkatu duten bost ikasleetako hiru**

Nazioarteko gazteen konferentzia da Confinta eta haien artean ingurumen konpromisoa sustatzeko helburuarekin bost kontinenteetan aurrera eramaten ari diren dinamika bat da. Nafarroako topaketa garrilarren 8an egin zen eta Bartzelonarako txartela lortu zuten.

Altsasuko bi ikastetxeetako ikasleek. Han izan dira ostegune-

tik larunbatera bitartean, klima aldaketagatik lurra aurre egin beharko dien erronkei buruz hausnartzen eta proposamenak egiten. Hamar erkidegoetako 120 ikasle izan ziren topaketan.

Sagrado Corazon ikastetxeetako besteak beste argindarra sortzeko bizikleten, baratze bertikalen eta ikastetxera bizikletaz joateko bide berdea martxajartzeari buruzko azalpenak eman zituzten. Aralarko Mikel Donea institutukoak, berriz, ikastetxearen inguruan hondakinak murrizteko kanpainaz, zuhaitzen landake-



Ezkerretik Imanol Lobo, Maite Martinez eta Xabier Ruiz de Arbulo beste nafarrekin

tez, uraren kalitatea eta aurrezpenari buruzko ikerketa, mugikor-

tasuna eta birziklatzea izan zuen hizpide.

**Azaroak 25, Emakumeenganako indarkeria ezabatzeko nazioarteko eguna**

## » Altsasu

**Emakumeenganako indarkeriaren kontrako esku moreak**

Altsasuko Udaleko Emakumearen Bilguneak, Intxostiapunta gazte gunearekin batera, emakumeenganako indarkeriaren kontrako egunaren kontura hainbat jardura prestatu ditu. Emakumearen Bilguneak astearterako aukeratu duten leloa da: indarkeriak hamaika aurpegi ditu eta ubeldura horietako bat baino ez da. Ezagutu eta egin planto. Hura geldiaraztean irudikatzen duten esku more baten irudia ere zabaldu du.

Bestalde, Altsasuko Udala onartutako adierazpen baten bidez egin du ageriko eta ezkutuko sexu indarkeria. Aldi berean, udalak gizon-emakumeen arteko ezberdintasunei eta desorekei modu eraginkorrean aurre egiten jarraitzeko konpromisoa hartu zuen. Aldi berean, elkartasuna adierazizien udalak eraso pairatu duten



Udala Nafarroako beste 15 toki erakunderekin batera egin du sentsibilizazio kanpaina. Hartarako materiala osasun mentaleko sare soziosanitarioko eragileek egin dituzte eta asteartean eman zioten materiala udalari. +www.guaixe.net

emakumei eta eraildako emakumeenganako indarkeriaren kontrako konpromisoa hartzera eta

**Egitaraua**

**Ziber jazarpena gaztaroan.** Azaroaren 22an, larunbatean, 18:00etan Altsasuko Intxostiapunta gazte gunean. 13 eta 16 urte bitartekoendako.

**Murala.** Azaroaren 23an, domekan, 18:00etan Altsasuko Intxostiapunta gazte gunean. 12-30 urte.

**Auskalo.** Azaroaren 24an, astelehenean, 19:00etan. Ondoren foruma. Altsasuko lortia kultur gunean. Teatro que madura.

**Emakumeenganako indarkeriaren aurkako ikasle adierazpena.** Azaroaren 25ean, asteartean, 11:30ean Altsasuko lortia kultur gune parean.

**Emakumeenganako indarkeriaren aurkako film laburren I. zikloa.** Azaroaren 25ean, asteartean, 12:00etan (ikasleendako) eta azaroaren 27an, ostegunean, 18:30ean. Ondoren, foruma. Altsasuko lortia kultur gunean.

**Maitasun erromantikoaren mitoak eraitsiz.** Azaroaren 26an, asteazkenean, 18:00etan Altsasuko lortia kultur gunean.

salatzera deitu ditu. + www.guaixe.net

**Indarkeriaren hamaika aurpegi**

Neskak beldurraren kulturaz hazi, emakumeak ezet esaten duenean baietz esan nahi duela, epaileak emakumea bortxaketaren erantzule egitean, bikote barruan mutilek neskak beti prest egon behar dutela uste dutenean, emakumeek "loreak" entzuten dituztenean, hedabideetan emakumearen irudia "sexualizatu" eta objektu bihurtzen denean, ohituraren aitzakiarekin espazio publikoan emakumearen parte hartzea ukatzen denean, ikastetxeetako jolas-tokiak futboleko jolasten duten mutilek okupatzean, emakumeen kirol lorpenak oharkabean pasatzen direnean, munduko pobreen %70 emakumeak direnean, lan beragatik emakumeek soldata gutxiago jasotzea, etxekolanak egitea aintzat ez hartzea, ardura postuetan emakume gutxiago izatea, amatasuna inposizioa bihurtzen denean...

**SAKANA****Sexu indarkeriaren kontra, ahalduntze indibidual eta kolektiboa**

**Emakumeenganako Indarkeriaren Kontrako Eguna dela eta Etxarriko eta Altsasuko mugimendu feministak ezarritako helburu horretara iristeko autodefentsa feminista aldarrikatu dute**

Azaroaren 25a, asteartea, izendatua dago Emakumeenganako indarkeria ezabatzeko eguna. Hori dela eta, Etxarri Aranazko eta Altsasuko Bilgune Feministak Altsasuko Feministekin batera "zapalkuntza patriarkalak bizirauteko ezinbestekoa duen indarkeria sexistaren makineriaren" kontra azaldu dira: "estetika kanonak, lan banaketa, maitasun erromantikoaren ideologia, erasoak... Autodefentsa feminista lehertuko dugu".

Euskal Herrian aurten eraildako emakumeak hiru izan direla

gogora ekarri dute. "Indarkeria sexistak ez du etenik. Era berean, larritzat jotzen ditugu gazte arteko sexu-afektiboetan indarkeria sexista hazten ari dela erakusten duten ikerketa edota lan sektore feminizatueta ematen ari den prekarizazioa". Feministek salatu dutenez, "sistemak forma aldaketak egin arren oinarriko hierarkia eta zapalkuntza mantentzen da".

**Ahalduntzea**

Mugimenduko kideek adierazi dutenez, "indarkeria emakumeen zapalkuntza ideologikoa, ekonomikoa eta soziala mantentzeko heteropatriarkatuaren ezinbesteko tresna da, generoaren araberako lan banaketan eta emakumeen bizibal-



Mugimendu feminisako kideak mobilizazioetara dei egiten. UTZITAKOIA

dintzen prekarizazioan sakonduz". Aldi berean, komunikabideek eta instituzioek emakumeen aurkako indarkeria sexistaz egiten duten traiera estereotipatu eta sinplifika-

tua salatu dute: "ez gara biktimak, ez subjektu pasiboak ez instituzioetatik bulkatzen diren neurri asistentzialekin konformatzen. Ahalduntze indibidual eta kolektibo

baten bidean autodefentsa feminista aukeratzeko dugu".

Kolektiboki erasoei erantzuten eta salatzen segitzeaz aparte, alternatiba bat eraiki nahi dute. "Euskal Herriaren burujabetza feminista" aldarrikatu dute eta bide hori ibili nahi duten emakume abertzaleei abenduaren 13an Ondarroan izanen diren VI. Emakume Abertzaleon Topaketan parte hartzeko deia luzatu dute. Aurretik, gaurko deialdian parte hartzera deitu dute.

**Egitaraua**

**Autodefentsa sarea josiz, emakumeon kontrako indarkeriari aurre egin!** Gaur, 19:00etan, Etxarri Aranazko plazan eta 20:00etan, Altsasuko plazan. Azken horren ondoren auzatea eta film laburren emanaldia.

**Autodefentsa ikastaroak.** Azaroaren 21ean eta 22an Altsasun eta abenduaren 20an eta 27an Etxarri Aranatzan.




GRUPO TANATORIO  
**IRACHE**  
TANATORIO TALDEA

948 564 355  
679 160 116  
(24 ORDUZ)

TANATORIOAK: ALTSASU-IRURTZUN-LEKUNBERRI-BETELU-LEITZA


www.tanatoriosirache.com



**Odei Iturrioz Fernandez**  
IV. urteurrena

Eskerrik asko gurekin zaudelako.


**Etxekoak**



**Odei Iturrioz Fernandez**

Biltoki tabernako lagunek eta lankideek ez zaitugu ahazten.

Altsasun.



**Odei Iturrioz Fernandez**  
IV. urteurrena

Esan nola izan gaitezkeen zure itzala, hodeiak zabaltzen dira zu ikusteko.

Esan nola igo gaitezkeen zure leihora... Maite zaitugu

**Betikoak**

Eskertzak eta eskelak osteguneko goizeko 11:00ak arte jasotzen ditugu



**Bidali mezua zorion@guaixe.net-era edo hots egin 948 564 275 telefonora**



**Oroigarriak egiten ditugu**

Nahi duzun argazki eta testuarekin

**GUIAIXE KOMUNIKAZIOA**  
948 564 275  
Foru plaza 23-1  
Altsasu  
argi@guaixe.net

**guaixe.iragarkilaburrak.com**

1 HIGIEZINAK	4 DENETARIK	7 AISIA/KIROLA
2 TEKNOLOGIA	5 IBILGAILUAK	8 FAMILIA/ETXEA
3 LANA/NEGOZIOAK	6 HARREMANAK	

**NORBANAKOEN IRAGARKIAK**  
Webgunean: [guaixe.iragarkilaburrak.com](http://guaixe.iragarkilaburrak.com)-en **doan**  
Guaixe astekarian: Saldu/erosi, erretan eman/ hartu, lan eskaintzak 11 euro + BEZ / 3 aste

**HARREMANETARAKO**  
Telefonoa: 948-56 42 75  
Posta elektronikoa: [zorion@guaixe.net](mailto:zorion@guaixe.net)

**Lana/ Negozioak**  
**LAN ESKARIA**  
Zaintza eta etxeko lanak. Emakumea naiz eta etxeko lanak egiteko, haurrak eta adineko pertsonak zaintzeko lana bilatzen ari naiz. Eskarmentu eta ezagutza handia dut Alzheimerra duten pertsonen zaintzan. Nire telefonoa: 639 15 88 12.

**Higiezinak**  
**LOKALAK**  
**ERRENTAN EMAN**  
Jatetxe-taberna alokatzen da Arbizun. Telefonoa 948 46 04 04.

**Ikastaroak**  
**Astrologia eta Reiki.** Astrologia: ikastaroak, kontsultak, karta astrala. Reiki: ikastaroak, saioak. Hots egin 659 82 94 38.

**AES.** "Ingelesa elkarriketa praktikak", Arbizun, 40 ordu, azaroa-abendua; ETEi aplikatutako trebetasun pertsonalak, Arbizun, abenduan; Informazio gehiago: 948 46 83 07 eta formacion@aesakana.com

**IFESek hainbat ikastaro antolatzen ditu Iruñean.** Informazio gehiago [www.ifes.es](http://www.ifes.es), 948-15 31 93 edo 948-46 71 20. On line ikastaroak: izen ematea <http://www.ifes.es>

**Forem Navarra - CCOO ikastaroak.**

Informazio gehiago: [www.foremnavarra.org](http://www.foremnavarra.org)

**AIN-consulting ikastaroak.** Informazio gehiago: 948 42 11 23 eta [formacion.ain.es/](http://formacion.ain.es/)

**Lehiaketa**  
**V. Gaztezulo bideo lehiaketa.** Bideoek "Hi eta hire munduak" gaia izanen dute oinarri. Gutxienez minutu bat eta gehienez 3 minutuko luzera izan beharko dute. 16 urtetik gorako gazteek parte hartu dezakete. Lanak azaroaren 6a eta 16a bitartean aurkeztu daitezke. Informazio gehiago: [www.gaztezulo.com](http://www.gaztezulo.com)

**Oharrak**  
**Iruñeko euskarazko telebistaren alde.** Xaloe telebistak Iruñerrian euskara hutsean emititzen hasteko 50.000 € behar ditu. Diru ekarpena non? [www.karena.eu/proiektua/xaloe-telebista-irunherrian](http://www.karena.eu/proiektua/xaloe-telebista-irunherrian) edo Iruñeko Karririkiri Euskal dendan (Xabier Karrika 4) eta Katakarak liburudendan (kale Nagusia 54).

**Elkartrukea.** Ingeles mintza. Maita ertain edo goraxeagokoa baduzu eta langilea bazara -ikasle- endako ez- ingeles herdoildu hori taldean askatze. Aingeru 685 47 46 82.

**EHE ren zozketa.** Edinburgon 2 lagunendako egonaldia 348 zb txartelak eskuratu du. Zenbaki sarituaren jabea [euskaltzale@euslherrianeuskaraz.org](mailto:euskaltzale@euslherrianeuskaraz.org) e-postara mezua bidal dezala.

**CAF-ELHUYAR sariak.** Hiru kategoria daude: Dibulgazio-artikulu originalak (2000 euroko saria), zientzia-kazetaritzaren arloko lanak (2000 euro) eta zientzia gizarte sorkuntzabeka (5000 euro). Lanak 2015eko otsailaren 12a arte bidal daitezke, Elhuyarren egoitzara (Zelai Handi kalea 3), Osinalde industrialdea, 20170 Usurbil) edo [cafelhuyarsariak@elhuyar.com](mailto:cafelhuyarsariak@elhuyar.com) helbide elektronikora.

**Autoenplegurako laguntza.** Zure lanpostua sortu nahi baduzu Cederna-Garalurrek honako laguntza eskaintzen du: ideia azterteza, proiektua garatzea, enpresa sortzea edota martxan dagoen jarduerara sendotzea. Argibide gehiago: 948 56 70 10, [sakana@cederna.es](mailto:sakana@cederna.es) edo [sakana.admon@cederna.es](mailto:sakana.admon@cederna.es)

**Nafarroan herri komunikabide bat sortzeko.** Diru bilketa hasi dute, Ahotsa behar dugu lelopean. Ekarpentak kontu korrontean (3035 0229 39 2290033933 Laboral kutxa) edo <http://goteo.org/project/ahotsa-behar-dugu?lang=eu> bidez egin.

**Mintzakide proiektua.** Egonkortzeko denon laguntza behar dugu, lagundu zabaltzen eta finantzatzeko: <http://goteo.org/project/zu-gabe-ezin>

**Nafarroako Elikagaien Bankuaren alde.** Diru ekarpentak kontu korronte hauetan egin daitezke: Laboral kutxa 3035 0069 52 0690024878, Rural kutxa 3008 0001 16 0700279128 eta Caixabank 2100 2173 87 0200346965.

**Haurraren erritmoak errespetatzen dituen eskola librea.** Nahi baduzu, deitu 661- 59 04 20 telefonora.

**Euskonek ekonomikoki laguntzeko kanpaina.** Informazio gehiago: [www.euskonek.com/laguntza](http://www.euskonek.com/laguntza) [euskonek@euskonek.com](mailto:euskonek@euskonek.com), 943- 32 22 94.

**3MBk kontu korrontea zabaldu du.** Rural kutxan eta jendeak han egin ditzake ekarpenak 3008 0093 66 2460985811

**Auzolana Josefina Arregui klinikan.** Auzolanean parte hartu nahi dutenek 948- 56 38 50 (klinika) edo 689- 03 51 20 (Patxi) telefonotara hots egin dezatela.

**Bazkideak Josefina Arregi klinikarako.** Bazkidea izan nahi duenak urtean 12 € edo nahi duen kopurua eman dezake. Informazio gehiago: [amigosjosefinaarreguilagunak.blogspot.com](mailto:amigosjosefinaarreguilagunak.blogspot.com) edo [amigosjosefinaarreguilagunak@gmail.com](mailto:amigosjosefinaarreguilagunak@gmail.com)

**Eskuratu zure belexegua txartela.** 50€ko kuota urtean eta deskontu eta abantaila paregabeak betirako. Deitu 948 564 275 eta izena eman edo bete formularioa gure webgunean [www.guaixe.net](http://www.guaixe.net).

**Nafarroako Ondarearen Defentsarako Plataforma laguntzeko.** Eliza katolikoak, Iruñeko eta Tuterako Elizbarrutiaren bidez, Nafarroako herrietan egiten ari zen ondare publikoaren inmatkulazioei aurre egiteko sortu zen.

**JAIOTZAK**  
• Oier Arruabarrena Erdozia, azaroaren 10ean Etxarri Aranatzan.

**HERIOTZAK**  
• Benito Navarro Lakuntza, azaroaren 13an Lizarragan.

Informazio hau epaitegietan eta udaletan jasotzen da

Egoitza Iruñeko Estafeta kaleko 57. zenbakian dago. Liburua argitaratu dute, hitzaldiak eman. Laguntza jasotzeko ondoko kontu korrontea zabaldu dute Nafarroako Kutxan: 2054/0142 68 9152623199.

**Lugorri produktu ekologikoen elkartea eta denda.** Sakanan produktu ekologikoa zuzenean eskuratzeko gunea da Lugorri, inguruko nekazari eta abeltzainekin harremanetan jarriz edo hornitzaile desberdinei eskatuz. Bertako eta urtaroko produktu ekologikoen alde egiten du Lugorri. Lugorriko partaide egiteko 50 euroko kuota bakarra eskatzen da. Lugorriko Lakuntzako denda (Mankomunitatearen parean) salgai dagoena: fruta, barazkiak, ogia, ardoa, olio, gazta, arroza, pasta, gailetak, txokolatea, haragia, behi esne eta esne begetalak, ezitia, arrautzak, garagardea, lekaleak, ozpina... Informaziorako: 656 711 130 (Gorka).

## PILOTA

**EZKURDIA LAU TERDITIK KANPO:** Final laurdenetako 3. jardunaldian Aimar Olaizola-aren kontra sorpresa ematekotan egon zen

Joseba Ezkurdia, baina azkenean goizueta-rrak irabazi zuen, 22-16, ongi sufrututa. Ezkurdia lau terditik kanpo geratu da.

## Pilota

11. IÑIGO ARITZA IKASTOLAKO PILOTA TXAPELKETA

## Goazen bigarren jardunaldiarekin

Bihar, larunbatean, 16:30ean, Iñigo Aritza ikastolako frontoian

1. jardunaldiko emaitzak:

LH4: Aimar Gracia 18 - Hegoi Lakuntza 14

LH5:

Arkaitz Agirretxe 18 - Aritz Sevilla 11

Amaia Zubiria 18 - Ane Ojer 16

Lander Peral 18 - Oihan Ginea 4

Ander Goikoetxea 18 - Koldo Mentxaka 7

LH6:

Aritz Ulaier 18 - Oier Gastesi 12

Angel Vergara 18 - Jon Plissonneau 4

DBH2: Urko Gartzia 18 - Peru Galartza 16

DBH4: Iñaki Bengoetxea 18 - Manex Goikoetxea 15

Aurreko larunbatean hasi zen XI. Iñigo Aritza ikastolako Pilota Txapelketa. Ikastolako 44 ikasle ariko dira lehen abendura bitartean, 7 mailatan, Lehen Hezkuntzako 3. mailatik hasita Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 4. mailara bitartean. Partidak Iñigo Aritza ikastolako frontoian jokatzen dira, larunbatean, 16:30etik aurrera.

## 2. Jardunaldia

Larunbatean, 16:30ean, Iñigo Aritza ikastolako pilotalekuan

LH4: Iker Agudelo - Aimar Bengoetxea

LH5:

Jon Navarro - Asier Solis

Irati Lumberras - Ekiñe Fernandez

Araitz San Roman - Aimar Lezea

Olatz Galarza - Amets Borregue-ro

Markel Arakama - Iker Saturio

LH6:

Unai Irigoien - Aitor Ovejero

Ekhi Olabide - Hodei Larrion

Inhar Olabide - Jokin Senar

DBH1:

Oier Berastegi - Ioritz Agirretxe

Aimar Garcia - Izadi Reparaz

Txomin Rubio - Patxi Arakama

DBH2:

Beñat Aldasoro - Haritz Goikoetxea

DBH4:

Manex Goikoetxea - Gorka Ansa

## Irristaketa



Ioseba Fernandez, Peularekin.

## Munduko txapelduna

IOSEBA FERNANDEZ ABIADURA IRRISTAKETAKO MUNDIALETAN AZKARRENA IZAN DA 500 METRO SPRINTEAN

Ioseba Fernandez irristalari itur-mendierra 2 dominekin itzuli da Argentinako Rosario jokatu-tako Abiadura Irristaketako Mundialetik.

## Zilarra eta urrea

Aurreko asteazkenean zilarrezko domina kolokoratu zuen Iosebak zirku-ituko 200 metroko erlojupekoan, Pedro Causil irabazle kolonbiarrarekin (16,865) 15 ehuneneko eskasera sailkatuz. Bada, ostegu-

nean jokatutako 500 metro sprintean onena izan zen Ioseba Fernandez, munduko txapelduna. Lehia bizia izan zuen Pedro Causil kolonbiarrarekin, baina, azkenean, Causilen eta Michael Mulder holandarraren aurretik iritsi zen helmugara. Munduko irabazleak familiari eta emazteari eskaini zien urrezko domina. Aste honetan itzuli da etxera, egindako lanarekin eta lortutakoarekin kontentua.

## Sokatira

## Nafarroako tiratzaile onenak Lakuntzan



Sakana Sokatira Taldekoak ez dira ariko txapelketa mistoan.

Nafarroako Sokatira Txap. Sailkapena:

600 kilo, gizonezkoak:

1. Beti Gazte (4 puntu). 2. Amaiur (3 puntu).

3. Berriozar (2 puntu). 4. Txantrea (puntu 1).

550 kilo, mistoak:

1. Berriozar (3 puntu). 2. Amaiur (2 puntu).

3. Txantrea (puntu 1).

Nafarroako Goma Gaineko Sokatira Txapelketako bigarren jardunaldia jokatuko da larunbatean, 19:00etan, Lakuntzako pilotalekuan

Lakuntzako Pertza Elkarteak 50 urte bete ditu. Larunbatean antolatutako ospakizunen barruan, Nafarroako Goma Gaineko Sokatira Txapelketako jardunaldiaz

gozatze aukera izango da.

Zehazki, Nafarroako Goma Gaineko 600 kilo azpitiko gizonezkoen txapelketako 2. jardunaldia eta Nafarroako Goma Gaineko 550 kilo azpitiko talde mistoen emakumezkoak eta gizonezkoak bigarren jardunaldia egongo dira jokoan. Gizonezkoetan 8 kidez osatutako lau talde lehiatuko dira: Beti Gazte, Amaiur, Berriozar eta Txantrea. Beti Gazte eta Amaiur dira faboritoak. Talde mistoetan, berriz, 8 kidez osatutako hiru talde lehiatuko dira: Berriozar, Amaiur eta Txantrea.

## Pala

## Erraketak gogoz astintzera

Asteburuan hasiko da IX. Sakanako Nesken Pala Txapelketa. 26 bikote ariko dira

Beste behin arrakastatsua izanen da Sakanako Nesken Pala Txapelketa. Guztira 26 bikotek eman dute izena, 6 mailatan. Hiru jardunaldietako ligaxka jokatu ondoren, abenduaren 20an eta 21ean aurre-finalak erabakiko dira eta abenduaren 26an, 27an eta 28an finalak. Asteburu honetan hasiko da txapelketa, helduen lehen mailan izan ezik. Hauek hurrengo asteburuan ekingo diote lanari. Partidak Etxarri Aranazko eta Altsasuko pilotalekuetan jokatuko dira, ostiraletan, larunbatetan eta igandetan.

## 1. jardunaldia

Benjaminak: Maria-Ane / Julene-Olaia

Kimuak: Naroa-Izaro / Maddi-Irantzu

Haurrak:

Elai-Luzia / June-Naroa

Maitena-Dinora / Saioa-Amairu

Kadeteak: Oihane-Naroa / Eider-Ikerne

Helduen 2. maila:

Lopez de Luzuriaga-Suarez / Ane-Miriam

Andrea-Izar / Ariane Andrea

Ane-Igone / Uxue-Uxue

Irati-Leire / Garazi-Irati



26 bikote lehiatuko dira guztira, 6 mailatan. Argazkian, 2013ko finalistak.

**PPSOE,**  
**ETB**  
**digitala**  
**Nafarroan**  
**orain!**

Berria erosi taldea

**LARRAZA**  
**ARDOAK**  
Tel.: 948 460 014



Zugarreta 2  
Etxarri-Aranatz

**GANUZA**  
**SUKALDEAK**  
Sukalderako altzariak

Bainu gelako altzariak  
Horma armairuak  
Etxetresna elektrikoak

Tel: 948 460 203 Fax: 948 460 673  
c.ganuzas@cocinasganuzas.com  
www.cocinasganuzas.com  
Etxarriko industrialdea  
ETXARRI ARANATZ



948 460 162  
Etxarri-Aranatz

**Ezkaba S.L.**  
Suteen prebentzio sistemak

INSTALAZIO  
ETA MANTENTZE-LANAK

- Su-itxalgailuak
- Biesak
- Sute-zentralak...

ESKAINNTZA BEREZIAK

- Auzokideen komunitateak
- Ostalaritza
- Abeltzgiak

Iruñea  
948 382 271 - Maturak 671 619 018  
www.prevencionezkaba.com

## Atletismoa

## Sergio Garcia de Eulate zortzigarrena Ikaztegieta

Sakandarrek maila bikaina eman zuten

Larunbatean jokatu zen 21. Ikaztegieta Herri Krosa, 10 km-ko proba. 95 korrikalari iritsi ziren helmugara, Jose Antonio Blanco buru zela (31:42). Sergio Garcia de Eulate izan zen lehen sakandarra, helmugara 8. postuan iritsi eta gero (35:03). Proban aritu ziren gainontzeko sakandarrek ere lan bikaina egin zuten. Francisco Javier Gomez 13.a izan zen (35:29), Iban Gonzalez 17.a (35:57), Andoni Azanza 22.a (36:43) Juan Carlos Gomez 26.a (37:06), eta Gorka Garcia de Eulate 30.a (37:52).

## Areto futbola



## Magnaren garaipen garrantzitsua

6-2 irabazi zion D-Link Zaragozari

Ostiralean D-Link Zaragoza taldea hartu zuen Magna Nafarroa Xotak Anaitasuna Pabilioian. Partida garrantzitsua zen, Espainiako Koparako txapelketan parte hartzeko lehen 8 postutan sailkatu beharra baitauka Magnak. Imanol Arregiren mutilek bikain jokatu zuten eta garaipen garrantzitsua lortu zuten, 6-2 irabazi baitzuten.

Gauzak ez ziren ongi hasi Magnarendako, 3. minutuan Zaragoza aurreratu baitzen. Baina Magnak partidako erritmoa bizkortu zuen eta bata bestearen atzetik iritsi ziren irurtzundarren golak. Pablo Ibarra, Carlitos, Eserverri, Jesulito, Dani Saldis eta Roberto Martil izan ziren golegileak. 6-2ko garaipenarekin despeditu zen lehia. Imanol Arregi pozik zegoen. "Osopartida serioa jokatu dugu eta hasieratik bukaerara nagusi izan gara. Garaipen justua da hau eta garrantzitsua" adierazi zuen.

## HURRENGO ARERIOA: EL POZO

Inter Movistar da liderra (29 puntu), Bartzelona bigarrena (28 puntu) eta El Pozo Murcia hirugarrena (21 puntu). Magna Nafarroa Xota 7.a da (16 puntu), Bihar, larunbatean, El Pozo talde ahaltsua izango du arerio Magnak, 13:00etan, Murtziako Kirol Jauregian. Partida Teledeporte katearen bitartez jarraitu ahal da. "El Pozo arerio oso konplikatua da. Baina gu lehenbizikoz 8 postuetan mantentzeko borrokan jarraitzen dugu, eta hori da garrantzitsua" aipatu du Imanol Arregik. Hortaz, dena ematera aterako dira irurtzundarrak.

## Duatloia- triatloia

## Puntako duatletak eta triatletak ditugu

Nafarroako Triatloi Galan 2014ko sariak banatu ziren. Iker Mintegi kimuen mailako txapelduna izan da, Fermin Azkargorta haurren mailako txapeldunordea eta Iñigo Maiza kadeteen txapeldunordea

Nafarroako Triatloi Federazioak antolatuta, azaroaren 15ean Nafarroako Triatloi Gala ospatu zen Lizarran. Bertan, besteak beste, 2014 denboraldiko Nafarroako Kirol Jolasen sariak, Nafarroako Duatloi eta Triatloi Zirkuituko sariak eta Nafarroako Duatloi eta Triatloi Eliteko sariak banatu ziren. Sari horietako batzuk Sakana eta etorri dira, puntako duatletak eta triatletak baititugu.

## Triatloi eta Duatloi Zirkuituan Igor Flores 5.a

Nafarroako Triatloi eta Duatloi Zirkuituan hurrengo probek puntuatzen zuten: Altsasu, Arbizu, San Adrian, San Juan, Tafalla, Aritzaleku, Ultzama, Mutiloa, San Juan eta Mendigorria. Proba guztiak kontuan hartuta Saltoki taldeko Martin Iraizozek lortu ditu puntu gehien, 418. Sakana Triatloi Taldeko kideek primerako maila eman dute. Aipatzekotan, Igor Flores 5.a izan da (310 puntu), Sergio Garcia de Eulate 6.a (299 p.), Javier Borrega 13.a (166 p.) eta Juan Luis

## Mintegi, Azkargorta eta Maiza



Nafarroako Kirol Jolasetako Duatloi Txapelketan ondoko probek puntuatzen zuten: Aranguren, Altsasu, Arbizu, San Juan, Tafalla, Basaburua eta Trizurko. Sakana Triatloi Taldeko duatletak maila bikaina eman zuten. Iker Mintegi altsasuarrak kimuen mailako txapelketa irabazi du, 26 punturekin. Basaburua, San Juan, Arbizu, Altsasu eta Aranguren probak irabazi zituen altsasuarrak, eta merezitako txapelduna da. Bestalde, haurren mutilen mailan Atalaya taldeko Mikel Armañanzas izan da txapelduna, 21 punturekin. Puntu berberak lortu ditu Sakana taldeko Fermin Azkargortak, eta nahiz eta Armañanzas baino garaipen gehiago izan, Armañanzasek proba gehiagotan parte hartu zuen eta horregatik izendatu dute txapelduna. Unai Villalobos 4.a sailkatu da (17 puntu) eta Oihan Perez 10.a (4 puntu). Bestalde, haurren nesken mailan Leire Maiza 5.a sailkatu da (10 puntu). Aipatzekoa da ere kadeteen gizonetako Iñigo Maiza etxarriarrak lortutako 2. postua (17 puntu), Saltokiko David Bronte txapeldunetik 7 puntura. Beste emaitza batzuk aipatzearren, benjamin mailan Xabier Borrega 8.a sailkatu da (7 puntu) eta Ander Villalobos 16.a (4 puntu). Halaber, Xabier Borrega Nafar Kirol Jolasetako Triatloi txapelketan benjamin mailan 5.a sailkatu da (16 puntu).

Maiza 17.a (149 p.). Gainontzeko sakandarrek 40. postutik aurrera sailkatu dira.

Elite mailako Triatloi eta Duatloi Zirkuituan, Agoitz, Valtierra, Isaba, Ardantze, Aritzaleku, Tuter, Natación, Zizur eta Kuatriatloia

probak ziren puntuagarriak. Jose Antonio Sadaba izan da onena (275 puntu). Lehen sakandarra Juan Luis Maiza izan da, 24. postuan (134 p.). Atzetik sailkatu dira Flores, Benjumea, Garcia de Eulate eta beste.

## Areto futbola

## Arbizu, lider berria

Futsalsakana Txapelketa. 3. jardunaldiko emaitzak:

Arbizu K.T. 12 - Auzomotojorik 9  
Arbizu harrobia 7 - Racing San Migel 12  
Bunker 7 - Iturmendi 3  
Hijos de ruta 1 - Back Street Boys 2

Asteburuan 2. Futsalsakana Areto Futbol Txapelketako 3. jardunaldia hartu zuen Uharte Arakilgo Larrabieta frontoiak. Arbizuk lidergoa eskuratu zuen, Auzomotojorik taldeari 12-9 irabazi eta gero. Orain arteko lider Bunkerrek ere irabazi egin zuen, 7-3 Iturmendiren kontra, baina aldeko golen-



Arbizu K.T.

gatik jarri da Arbizu lider.

Sailkapenean 9 puntu dituzte Arbizu liderrak eta Bunker bigarrenak. Back Street Boys eta Racing San Migelek seina puntu dituzte,

## 4. jardunaldia

Larunbatean, Uharte Arakilgo frontoian  
14:00etan: Iturmendi - Arbizu harrobia  
15:00etan: Racing San Migel - Arbizu K.T.  
16:00etan: Auzomotojorik - Hijos de ruta  
17:00etan: Back Street Boys - Bunker

Arbizu harrobiak eta Hijos derutak hiruna puntu eta Auzomotojorik eta Iturmendi taldeek punturik bildu gabe jarraitzen dute. Asteburuan 4. jardunaldia dago jokoan.

## Saskibaloia

## Etxarrin, saskibaloia

Sakanako II. Saskibaloi Topaketetako 2. jardunaldia jokoan, 11:00etan aurrera

Sakanako Mankomunitateko Kirol Zerbitzuak Sakanako II. Saskibaloi Topaketak antolatu ditu, hainbat laguntzailerekin batera - Irurtzun, Etxarri Aranatz eta Altsasuko Udalak, Altsasu eta Irurtzungo Saskibaloi Taldeak eta Andra Mari ikastola. Aipatu topaketetan premini mailako taldeak ariko dira, 8 urte-

tik 10 urtera bitarteko neska-mutikoak, Altsasuko Saskibaloi Taldekoak, Irurtzungo Saskibaloi Taldekoak eta Andra Mari ikastolako Saskibaloi Taldekoak. Helburua saskibaloia sustatzea, Sakanako talde eta neska-mutikoen arteko harremana bulkatzea eta Nafar Kirol Jolasetan lehiatzen ez diren lehiaketa batean parte hartzeko aukera ematea da. Baina ez da txapelketa lehiakorra izanen, eta horregatik

ez da sailkapenik egingen.

Azarotik ilbeltzera bitartean jokalariek nahasita ariko dira. Hau da, asteburu talde ezberdinak sortuko dira eta euren artean lehiatuko dira. Eta ilbeltzetik aurrera klubek arteko partidak jokatuko dira. 2. jardunaldia Etxarri Aranatzko San Donato ikastetxe pilotalekuak hartuko du. Lehen partida 11:00etan jokatuko da eta bigarrena 12:00etan.

## Futbola

## PREFERENTE MAILA. 1. multzoa

10. JARDUNALDIA

LAGUN ARTEA 0 - CANTOLAGUA 1  
Parez pare aritu ziren Lagun Artea eta Cantolagua liderra. Cantolaguak gola sartu zuen, jokoz kanpo argian, eta gol horrek partida baldintzatu zuen. Nahiz eta jabetza Lagun Artearena izan, eta partida galtzea ez merezi, liderrak eraman zituen 3 puntuak.

Sailkapena &gt;&gt;

1. Cantolagua ..... 24 p  
13. Lagun Artea ..... 9 p

Asteburuko jardunaldia

SAN JUAN - LAGUN ARTEA  
(Igandean, 16:30ean, Iruñean)

## ERREGIONAL MAILA. 4. multzoa

11. JARDUNALDIA

HUARTE B O - ETXARRI ARANATZ 1  
ALTSASU 0 - BURLADES 1  
Etxarrik lidergoari eusten dio, Itaroa Huarteri 0-1 irabazi eta gero. 5. minuturako aurreratu zuen Etxarri, Huartek euren atean sartutako gol bati esker. Etxarrik eraso guztiak aurreratu egin zuten eta 3 puntuekin etorri zen. Aldiz, Altsasuk ezin izan zituen Dantzalekun jokoan zeuden 3 puntuak lortu. Bigarren zatian Altsasuk gehiago estutu zuen, baina ez zuen aparteko arriskurik sortu. 85. minutuan, tamalez, gola sartu zuen Burladesek eta horrela bukatu zen partida.

Sailkapena &gt;&gt;

1. Etxarri Aranatz ..... 25 p  
10. Altsasu ..... 15 p

Asteburuko jardunaldia

ETXARRI ARANATZ - UNIV. DE NAVARRA  
(Larunbatean, 15:30ean, Etxarrin)  
ULTZAMA - ALTSASU  
(Igandean, 12:15ean, Berriozarren)

## ELOMENDIKO FUTBOL TXAPELKETA

9. JARDUNALDIA

EGIARRETA 1 - APOLO 0  
ZALDUA 4 - AGERI 0

Sailkapena &gt;&gt;

1. Bar Poukas ..... 12 p  
2. Egiarreta ..... 20 p  
7. Zaldua ..... 9 p

Asteburuko jardunaldia

EGIARRETA - UNZITI  
APOLO - ZALDUA

## Futbola



## 5. jardunaldia jokoan Kimuen Futbol 8 Topaketetan

Igandean, Altsasuko Dantzalekun

Mank-ek antolatutako Sakanako Kimuen Futbol 8 Topaketetako 5. jardunaldia jokatuko da igandean Altsasuko Dantzalekun. 10 talde lehiatzen ari dira txapelketa moduan jokatzen den topaketan. Helburua txikiengan kirola eta futbola sustatzea da, eta horregatik ez da sailkapenik egingen.

## 5. jardunaldia

Igandean, Altsasuko Dantzalekun

10:30ean: Urdiain - Tipi Tapa  
11:30ean: Arbizu - Dantzaleku  
11:30ean: Mediolanum - Kaixo  
12:30ean: Txartel - Sayas  
12:30ean: Lagun Artea - Sutegi

# Etengabeko **25 urteko dantzak**



**Bihar, larunbata, 13:30etik aurrera Irurtzunen Orritz dantza taldeak bere 25. urteurrena ospatuko du**

**F**enix hegaztiaren antzera sortu zen Orritz dantza taldea, aurreko talde baten errautsetatik. Aurretik arakildarrak biltzen zituen dantza talde batean aritutako hiru

pertsona 1989ko lastaileko egun batez elkartu eta dantza talde berri bat sortzeko konpromisoa hartu zuten. Urtebeteko entseguen ondoren, Berueteko festetan mustuzen Orritz. Irurtzunen, berriz, San Martin festetan. Ordutik gaur arte, etenik gabeko 25 urteko jarduna izan du Orritz dantza taldeak.

Urteurrena ospatzeko garagartzar-

roaren 14an Nafarroako Dantzari Eguna Sakanan eta, bereiziki Irurtzunen, ospatu zen. Herrialde guztiko 700 dantzari elkartu zituen Orritzek urteurrena dantzan ospatzeko. Baina etxekoendako ospakizunak udatzenerako utzi dituzte. Bihar elkartuko dira taldeko dantzariak, dantzari ohiak eta aurretik izandakotaldeetan aritutako dantzariak ere.

## Taldea

Ikasturtean zehar Irurtzun eta inguruko herrietako 15 eta 30 dantzari artean elkartzen dira entseguetan. Haiei 5 eta 14 urte arteko dantzari txikien taldea eta helduendako ematen dituzten dantza ikastaroak gehitu behar zaizkie. 15 urte dira ere Orritzen erraietatik Iskidi joaldun taldea

## Egitaraua

**13:30ean** Haize Berriak banda, Irurtzunen barnako kalejira.  
**18:00etan** Dantzarien kalejira, Atakondoako patiotik hasita.  
**18:30ean** Dantza saioa, Biazpe pilotalekuan.  
**22:30ean** Afaria, Atakondoako jantokian.

eta pertsonaia mitologikoak sortu zirela.

Orritz dantza taldea kultur eragile dinamikoa dela agerian utzi du bere ibilbidean. Herrietan eta atzerrian (urtero) eskainitako dantza emanaldiez aparte, udaberriro dantza jaialdia antolatzen du Irurtzunen. Taldeak kultur dinamika finko bat eskaini dio Irurtzuni, baita bertako eta inguruko gazteek parte hartzeko bitarteko bat ere. Beste eragileekin harremanetan, elkarlanerako prest, euskararen ikuspegitik Orritz erabileran bermatzen duen arnagune bat da Arakilen.

## Orritzen aurrekariak

**O**rritzekoak dantzan hasi aurretik izan ziren dantza taldeak aurretik. Pasa den mendeko 60ko hamarkadan hainbat pertsona elkartu eta entseatu hasi ziren. Gizartearen testuingurua, ordea, ez zen errazena; euskararekin eta euskal folkloarekin lotutako jarduerak ez zeuden ongi ikusiak eta, beraz, ezta hartan aritzen zirenak ere. Ezzen talde handia izan eta bitarteko faltagatik hilabete batzuk besterik ez zituen iraun.

Lagun Berriak elkartearen beste jardueraren baten modura sortu zen Grupo de Danzas de Irurtzun 1973 urte inguruan. 17 eta 19 urte bitarteko irurtzundarrek osatu zuten taldea. Aurreneko emanaldia Tri-

nitateko festetan egin zuten (1973-06-09) eta lauzpabost urtez martxan izan zen.

Aurreko taldearen jarduna gelditu ondoren, 1978an, Grupo de Danzas del Valle de Arakil taldea hasi zen. Irurtzundarrak, ihabardarrak, irintarrak, arbizuarrak, Etxarri-Larraungoak eta beste herritako kideak zituen. Zenbait urtez jatorrizko izenari eutsi zioten, harik eta aldatzeko ideia sortu zen arte. Entsegu batean jasotako izen proposamen guztien artean Orritz izan zen aukeratua (Unanu eta Dorrao arteko toponimo bat, Leziza aldean, Beriain magalean). Dantza taldeak XX. mendeko 80ko hamarkada erdial-



dera arte eutsi zion, jende faltagatik desegin arte. Horretarako arrazoi bat taldekide kopurua murrizten zuen soldadutza izan zen. Talde haren izena, armarría

eta zigilua hartuko zuten hamar-kada bukaeran jardunera bueltatuko zirenek.

**Katamalok** Plateruena Kafe Antzokian emandako agur kontzertua zuzenean!

Plateruenaren alde **Katamalok** egindako lana. 8€an eskuragai gurean.



**PLATERUENA**

Ziaberriren, Durangon kultura bizitzeko.

...eta Urte  
**ASKOTARAKO!**

# Etxarriarrik ez Izeta sariketako finalean

**A**rbizuko Argibidea elkar-  
tean ostiralean 45 bat  
bertsozale elkartuziren,  
arbizuarrak eta etxarria-  
rrak gehienak. Guztiak ere Maria-  
no Izeta bertso sariketaren kanpo-  
raketarekin gozatzeko asmoz. Kotte  
Plaza (Irurita), Ioar Tainta (Lesaka),  
Joanes Ilarregi (Leitza), Amaia  
Elizagoien (Ornoz) eta Unai Artie-  
da eta Saats Karasatorre etxarria-

rrak aritu ziren kantuan. Aurre-  
neko biak izan ziren finalerako  
sailkatu zirenak.

Etxarriarrei dagokienez, biak  
ere txukun aritu ziren. Artieda oso  
ongi aritu zen eta gutxigatik ez  
zuen lortu finalean sartzea. Tar-  
teka ongi aritu zen Karasatorre,  
baina urduritasuna nabaritu  
zitzaien. Hala ere, Bardoak txapel-  
ketan hasitako bidean aurrera

egin dutela nabaritu zitzairen. Biak  
ere, ostegunero, bertso eskolan  
aritzen dira, bat-batean bertsoan  
aritzeko trebezia ontzeko.

## Finala

Mariano Izeta bertso sariketaren  
seigarren edizioako finalean seiko-  
tehauarrikoda: Alazne Untxalo (Itu-  
ren), Maddalen Lopez (Lesaka),  
Saioa Alkaiza (Antsoain), Oier  
Amiano (Elizondo), Kotte Plaza  
(Irurita) eta Ioar Tainta (Lesaka).  
Finala Baztango Errugbi Taldeko  
elkartean izanen da eta Fernando  
Anbustegik aurkeztuko du. Epaile  
lanetan Saioa Mitxelena, Jon Abril  
eta Mikel Altzuart arituko dira.



Afaldu ondoren, 22:00etan, hasiko  
da saioa. Afarira joateko txartelak  
15 euro balio ditu eta Nafarroako

Bertsozale Elkartean erreserbatu  
(nafarroa@bertsozale.eus edo  
948143747 telefonoan) daitezke.

## Etxebestetarrena



Larunbatean, 20:00etan, Altsasuko  
Iortia kultur gunean

**K**omedia beltz bat ekarriko  
du bihar Altsasura Suri-  
panta Teatrok, *De vacaciones*.  
Denek ulertzeko moduko hiz-

kera erabiliz, konpainiak egune-  
roko egoerak eta pertsona ezagu-  
nak aurkeztuko ditu oholoz. Bai-  
na ez da umore hutsa, zer pentsa  
ematen duena baizik. Benetako  
gertaera batean oinarrituta sor-  
tutako ikuskizuna da: itxura bai-

zik kontuan hartzen ez duen gizar-  
te batean murgildurik dagoen  
bikote baten istoria.

Senar-emaztea dira komediako  
protagonistak. Senarrak lana gal-  
du duenez, bere mundu erosoak  
kinka larrian gelditu da, baina ez  
dago prest bere inguruko guztiek  
galtzaille hutsa dela pentsatzeko.  
Biek etxean ixtea erabakiko dute  
guztiei Kariben hilabeteko oporretan  
daudela sinestarazteko. Itxial-  
dia gogorra izanen da, pertsonaien  
arteko tirabirez eta, gero eta gehia-  
go, muturreko egoerez betea. Inork  
ezin du susmatu etxearen barnean  
inor dagoenik, zantzurik ñimi-  
ñoena izanda bere plan guztiek  
porrot egingen baitute.

Extremadurakoa da Suripanta  
konpainia eta 30 urteko ibilbidea  
egitear da. Altsasun antzeztuko  
duten obra ekoiztu duen 20. da.

## Bikote harremanei buruzko mikro antzerkia

Astelehenean, 19:00etan, Altsasuko  
Iortia kultur gunean, ondoren foruma

**T**eatro Que Madura taldeak  
*Auskalo* antzezlana aurkez-  
tuko du etzidamu Altsasun.  
Josune G. Monton eta Laura Lopez  
aktoreak oholoz gainean arituko  
dira Maite eta Aitor bikotearen  
bizitzaren une erabakigarri bati  
bizia ematen. Maitemindu

batzuen, bikote baten istorioa eka-  
rriko dute. Egun batean zerbait  
gertatu ondoren, Maitek galdera  
bat egingen dio Aitor bikoteari, eta  
ez du erantzunik jasoko eta gau-  
zak suertatuko dira. Guztia 15  
minutuan. Ondoren, obrari buruz-  
ko foruma izanen da. Emakume-  
enganako indarkeria ezabatzeko  
eguneko egitarau barruan dago  
antzezlana.

## Madariagaren azken liburuan XVII. eta XVIII. mendeetako gizartea eta euskara ardatz

**O**stiralean, Euskaltzaindiak  
Donostian antolatu zuen  
XIX. Jardunaldiaren  
barruan Juan Madariaga Orbeak  
*Sociedad y lengua vasca en los siglos  
XVII y XVIII (Euskara eta euskal  
gizartea XVII. eta XVIII. mendeetan)*  
liburua aurkeztu zuen. Liburua  
euskararen historia soziolinguisti-  
koa jorratzen duen Etxeberri bil-  
dumaren barruan argitaratu du  
Akademiak. Euskal Herri osoa kon-  
tuan hartzen saiatzen da egitarre-  
tarra eta eskuarte dagoen iturri  
eta bibliografia ahalik eta osoena  
erabiltzen du hizkuntzaren ikus-  
puntutik gizartearen azterketa  
sozio-historikoa egiteko.

Hamahiru zatitan banatuta  
dago liburua. Bere lanaren espa-  
rrua eta metodologia aurkeztu  
ondoren, bigarren kapituluaren eus-  
kararen presentzia instituzio  
administratibo jakinetan lantzen



du autoreak. Ondoren, eliza, hez-  
kuntza, osasuna, hizkuntza-bitar-  
tekariak, hiltunen hizkuntza-gai-  
tasuna, literaturaz aparte tes-  
tuetan euskararen testigantza  
idatzia, euskararen ezaugarri  
pragmatikoa eta sinbolikoa, inki-  
sizioaren sorginkeria epaiketarik  
ateratuko hizkuntza ondorioak  
eta, azkenik, bertsolaritza. Gai  
horiek landu eta gero, Madariaga  
liburua ixteko euskararen heda-  
pen geografikoa eta euskaldunen  
demografia zehazten saiatzen da.

## Doktoreak dio: oinarria pelvis-zoru egokia da!



Larunbatean, 20:00etan Olatzagutiko  
kultur etxean

**M**aster Batetu Solita Catalina  
doktoreak bere plana aur-  
keztuko du Olatzagutian bihar.  
Doktorea identitatea eta pixa gal-  
tzean aditua da eta *Txumino power  
revolution* izeneko programa gara-  
tzeko gonbitea luzatuko du. Bate-  
tu Solita Catalina doktorearen iri-  
tiz, buru edo sabai energetikoa  
eraikitze hura landu beharrean  
oinarria jartzea garrantzitsua  
goa da. Eta oinarri hori, doktore-

aren arabera, pelvis-zoru botere-  
tsu bat da. Doktoreak, beraz, esze-  
natokitik pelvis-zoru boteretsua  
izateko bere programaren pun-  
tuak aletuko ditu.

*Ovarios verdes fritos* ikuskizunean  
gertatzen da hori guztia. Detritus  
teatrisko Belen Nevado aktore  
eta zuzendariak sortutako ikuski-  
zuna emakumearen sexualitatearen  
hainbat arlo jorratzen ditu  
antzerki ikuskizun probokatzaile,  
apurtzaile eta dibertigarri baten  
bidez. Doktoreak dioen moduan:  
gustua nirea da, plazera zuena.

## Vendettak disko berria doan deskargatzeko aukera emanen du

Abenduaren 5ean aurkeztuko du 13  
balas disko berria.  
[www.lavendetta.org](http://www.lavendetta.org) orriaren bidez  
formatu fisiko eta digitalean erosteko  
aukera izanen da, baita doan  
deskargatzeko ere

**P**ello Reparazen (tronboia eta  
ahotsa) eta Luisillo Kalan-  
drakaren (baxua eta ahotsa) tal-  
deak, Vendettak, abenduaren  
5ean aurkeztuko du bere lan  
berria, *13 balas*. Reparazek esan

duenez, “disko kañeroa, indar-  
tsua eta bizia egin dugu”. Tal-  
dekideek haien musika dohainik  
partekatzea erabaki dute, Luisi-  
llok esan duenez, “guk geure  
buruei ezartzen dizkiegun mugen  
gaintetik hegan egin dezan”.  
[www.lavendetta.org](http://www.lavendetta.org) web orria-  
ren bidez eskuratu ahalko da tal-  
dearen musika. Urte akaberar-  
ako, gainera, telefono mugikorre-  
tarako aplikazioa prest izanen



dute,  
haien musika mugi-  
korrean entzun ahal izateko.

## Salazar NGJn

**G**aur arratsaldetik eta igande-  
ra arte Nazioarteko Grabatu  
Jaialdia ospatuko da Bilbon. Jaial-  
dian ere kabida du paper gainean  
egindako artea, aitzinakoa, moder-  
noa edo garaikidea. Euskalduna  
Jauregian zabalduko ditu atekak

jaialdiak, 11:00etatik 21:00etara.  
Bildumazaleendako aukera izan-  
en da. Euren lanak aurkeztuko  
duten artisten artean Dora Salazar  
dago. Windsor Kulturgintza  
galeriak eramanen du jaialdira  
altsasuarraren obra.

## Sakandarrak Maisu-teknoko plateretan



Larunbatean, 20:00etatik aurrera Olatzagutiko Maisuenea gaztetxean

**M**aisu-teknoko, musika elektronikoaren zarpigarren jaialdia hartuko du bihar Maisuenea gaztetxe olaztiarrak. Hamabi orduko musika eskaintza osatuko dute Sakanako beste horrenbeste disko jartzaile. Goi-

zaldere arte, orduro txandakatu-ko diren Dj-ak honakoak izanen dira: Dzergey, Anabera, Sevi, Garte, Diego Duet, Aitorl, Eder, Bete-lu, Txen, Gordon VS Atxus eta Rail. Olatzagutiko Gazte Asanbladak antolatutako musika elektroniko-ko jaialdian, gau osoan, LS Visua-lesen argi eta proiektzio ikuskizuna izanen da doinuen lagungarri.

## Zinema euskaraz: Loreak

Gaur, ostirala, 22:00etan eta etzi, igandea, 20:10ean Altsasuko lortia kultur gunean

**D**onostiako Zinemaldiko sail ofizialean aparteko harrera izan ondoren, Sakanara, Altsasura iritsi da *Loreak* filma. Jon Garañok eta Jose Mari Goenagak zuzendutako lana euskaraz ikusteko aukera izanen da gaur eta etzi.

Hiru emakumeren istorioen berrijasoko du zinema aretoan sartzen denak; lore-sorta xume batzuek goitik behera aldatuko dituzten hiru bizimodu. Aneren bizimodua goitik behera aldatuko da, astero-astero, etxean lore-sorta bat jasotzen hasten denean. Beti ordu berean. Beti modu anonimotan. Lore misterioitsu batzuek aldatu egingo dituzte Lourdesen eta



Tereren bizimoduak ere. Ezezagun batek lore-sorta bat utziko du astero, eurentzat hain garrantzitsua izandako norbaiten oroimenez.

## Sei poeta errezitaldi baterako

Bihar, larunbata, 17:30ean Uhartre Arakilgo Donibane jubilatuek elkartean

**P**oesia doinuek jantziko dute bihar arratsaldean Uhartre Arakilgo jubilatuen atmosfera. Udazkenarekin batera hitzordu finkoa bihurtu den errezitaldia izanen da, bederatzigarrena dagoeneko. Olerkarien artean biri anfitrioi lanak egitea egokitu zaie: Blanca Arrizabalagari eta Alfonso Murori. Lehenak poema berriekin batera zaharragoak emanen ditu, ama, erlijioa edota amodioa gai dutenak. Murok amodio olerkiak errezitatu izan ditu aurreko edizioetan bezala.

Bi poeta uhartearrekin batera, hitzordu poetikora behin bakarrik



huts egin duen Mercedes Viñuela izanen da. 84 urterekin letren munduan buru belarri dabilen emakumea bere obraren ale berriak emanen ditu poesia topaketan. Viñue-

lak argitaratua du poesia liburua. Literatura analisiari buruzko hainbat liburu eta kolaborazioak hainbat aldizkari eta argitalpenetan publikatu dituena Tomas Yerro

Villanueva poeta da. *Itaca* eta *Rio Arga* aldizkarien zuzendari izan zen. Leringoa, irakaslea eta Altsasuko institutuan ere aritu zen. Nafarroako Gobernuan kultura ardurak izan zituen ere Yerrok 1991 eta 1999 urteen artean.

Lau horiek euren olerkigintza aletuko dute. Elkarrekin ariko direnak, berriz, Ventura Ruiz eta Josu Castillo dira aktoreak dira. Obra poetiko bat emanen dute jendaurrean. Batak besteari hitza txandakatuz garatuko dute euren emanaldia. Errezitaldi guztiak Mikel Auzmendi gitarra-jole etxarriarraren musika laguntza izanen dute. Bilkura poetikoaren akaberran elkartutakoendako auzatea izanen da.



## Erkudengo Ama abesbatza lanpetuta

**B**ihar, Zezili Donearen eguna bedomusikarien egunean, hiru emanaldi eskainiko du Erkudengo Ama abesbatzak. Eguerdian Lizarrako zahar egoitzan kontzertua eskainiko du. 18:00etan emanaldia Eulateko zahar egoitzan izanen da. Bietan polifonia eta folkloreko doinuez osatutako egitaraua aletuko dute. Lizarraldeko bira txikiaren ondoren Altsasura bueltatu eta, musikarien egunean ohi dutenez, herrian barna kalejira egingen du Erkudengo Ama abesbatzak 20:30etik aurrera.

## Irakurketaren sari bikoitza

**Etxarri Aranazko liburutegiko euskarazko funtsak irakurri eta ondoren balorazio fitxa betetzen dutenek herriko liburu-dendetan liburuak erosteko deskontu txartelak eskuratuko dituzte**

**E**uskaraz Irakurri, Gozatu eta Oparitu kanpaina martxan jarri dute Etxarri Aranazko Udaleko Euskara Batzordeak eta Victoriano Huizi liburutegiak. Astelehenaz geroztik eta ilbeltzaren 31ra arte liburutegitik euskarazko liburuak maileguan hartu, haiek irakurri eta liburutegian iritzia ematen dutenak deskontuak eskuratuko dituzte.

Deskontuak liburuaren prezioaren %25ekoak dira orokorrean. Baina %50eraino iristen da deskontua euskaltegiak ikasleen eta Mintzakide programako parte-hartzaileen kasuan. Gainera, Etxarri Aranazko Irakurle Talde-



ko kideek %40ko deskontua eskuratuko dute. 12 eta 16 urteko gazteen kasuan, kanpaina parte hartu eta iritzia ematearen truke e-book baten zozketan sartzeko aukera izanen dute.

Hirugarren urtea da kanpaina martxan jartzen dena. Euskarazko irakurle gazteen eta helduen kopurua handitzeko asmoz sortu zen kanpaina. Aldi berean, normalean

euskaraz irakurtzen duen irakurlea saritu nahi da. Etxarri Aranazko liburu-dendei ere bultzada bat eman nahi zaie euskarazko irakurketa sustatzeko egitasmoarekin.



## Nonerabili

### ALDASORO HARATEGIA

ALTSASU

30€ko erosketa batengatik etxeko produktua opari.

### ALFA INMOBILIARIA

ALTSASU

Etxe edo pisu baten erosketatik 100€ko txekoa opari.

### KIXKUR ESTETIKA ZENTROA

ZIORDI

30€ko gastuarekin %20eko deskontua produktuetan.

### IORTIA HORTZ KLINIKA

ALTSASU

%10eko deskontua aho garbiketetan eta hortz ateratzetan. Azterketa doan.

### JULENE KORTSETEGI ETA LENTZERIA

ALTSASU

%5eko deskontua 50 €tik gorako erosketetan.

### JON CORDON TAXIA

IRURTZUN

%10eko deskontua.

### JAVIER AIZPUN HARATEGIA

UHARTE ARAKIL

50 €ko erosketetan, etxeko produktua doan.

### MARTIARENA GAZTANDEGIA

UHARTE ARAKIL

40 €ko gastuarekin, etxeko produktua doan.

### BERGARA CENTRO OPTICO

AGURAIN

Graduatutako eta eguzkitako betaurrekoetan %10eko deskontua.

### JUGA TAILERRAK

ARBIZU

%10eko deskontua mantenu piezetan, %5eko deskontua gurpiletan.

www.guaixe.net-en zerranda osoa ikusgai



## G

asteko >> : eguraldia

ostirala	larunbata	igandea	astelehena	asteartea	asteazkena	osteguna
euria: 3%	euria: 13%	euria: 91%	euria: 87%	euria: 40%	euria: 48%	euria: 38%
Min: 10 Max: 14	Min: 10 Max: 15	Min: 9 Max: 12	Min: 7 Max: 10	Min: 5 Max: 9	Min: 4 Max: 11	Min: 4 Max: 10

: temperatura >>

	Max. °C	Min. °C	euria l/m <sup>2</sup>
Irurtzun	17	3.6	38.6
Etxarri A.	15.6	1.5	45.8
Altsasu	15.5	1.5	48.2
Aralar	9.4	0	32.4
Urbasa	-	-	-

: ilargiaren aldia >>

ilberri	ilgora	ilbete	ilbehera
22	29	6	14

## EGOKI

VENTANAS PVC LEIHOAK

www.ventanasegoki.com

948 563 253 Arkinoturri Industrialdea · Olazti ERAKUSKETA: Olite kalea 16 · Iruñea

KALITATEA - AURREZKIA - EROSOTASUNA

egoki@ventanasegoki.com

Acrylcolor

SISTEMA BERRIA

KOLOREA GEHIAGO ETA HOBE

Azaroko bazkide zozketa

**AZAROKO SARIAK:**

1. Ekainberri kobazulotarako 2 sarrera, Lacturale esnea eta yogurtak, Gaztezulo aldizkarian 3 hilabeteko harpidetza, Artaza kanpinerako deskontu balea eta Magana Navarra Xotarako 2 sarrera.
2. Artazako kanpinerako deskontu balea, Lacturale esnea eta yogurtak, eta Gaztezulo aldizkarian 3 hilabeteko harpidetza eta Magana Navarra Xotarako 2 sarrera.
3. Artazako kanpinerako deskontu balea, Lacturale esnea eta yogurtak, eta Gaztezulo aldizkarian 3 hilabeteko harpidetza eta Magana Navarra Xotarako 2 sarrera.
4. Artazako kanpinerako deskontu balea, Lacturale esnea eta yogurtak, eta Gaztezulo aldizkarian 3 hilabeteko harpidetza eta Magana Navarra Xotarako 2 sarrera.

# >> 11 galdera

## Maria Dolores Urkijo

Etxarriko Vda. de L. de Sabando denda

Testua: Eneida Carreño eta Mainer Betelu

### 1. Vda. de L. de Sabando, tejidos y confecciones da zuen denda.

Nire aitona zenak, amaren aitak, sortu zuen denda 1912an. Berak eraman zuen negozioa, amonaren laguntzarekin, 1925ean hilzen arte. Eta orduan amonak hartu zuen ardura. Hortik dator izena, Viuda de Sabando. Orduan herriz herri joaten saltzera, zalgurdiari. Irurtzongo ferriara eta inguruko herrietara joaten ziren eta denda antzekoa jartzen zuten. Altsasura igandetan joaten ziren. Zubeztia elkartearen baxuetan, orduko Zirkuluaren baxuetan, sukurtsala zuten, eta igandean zabaltzen zuten.

### 2. Zer saltzen zuten?

Gehienbat oihalak; baita jantziak, trajeak, gabardinak eta beste. Garai haietan norbait hiltzen zenean zurezko kaxa neurrira egiten zitzaion, eta kaxa forratzeko oiha la erostera gurera etortzen zen jendea. Letra doratu batzuk ere saltzen genituen, hilkutxan hildakoaren inzialak jartzeko.

### 3. Denda beti Etxarriko plazan egon da?

Bai, gure etxean. Beranduago, furgoneta erosi zuten. Nire amona gida baimena atera zuen Nafarroako lehendabiziko emakumeetako bat izan zen. Herrietara furgoneterekin joaten hasi ziren. Seme-alabak laguntzen zioten, tartean sastre izan zen osabak, prakak eta atorrak josten zituenak... Baina gutxinaka norberak bere bidea hartu zuen eta ama gelditu zen amonarekin. Eta ondoren aita batu zitzaion.

### 4. Noiz eman zen aldaketa, hau da, orduko oihalak saltzetik gaur egun ezagutzen dugun dendara?



Elkarrizketa osorik [www.guaixe.net/en](http://www.guaixe.net/en).

Oihalen salmentak behera egin zuen nabarmen, etxeetan josteari utzi zitzaiolako. Hortaz, oihalak ez ziren apenas saltzen. Egun, barruko arropa, ohe-arropa –maindireak, mantak...– eta lanerako arropa –buzoak, praka urdinak...– saltzen dugu, besteak beste.

### 5. Betiko denda da zuena. Herrietan erreferente izaten dira halakoak.

Bai, eta denetatik pixka bat izan behar duzu. Esaterako, txapelak saltzen jarraitzen dugu. Beste toki batzuetan ez dira errazak aurkitzen, laneko arropa bezala. Eta gero, jendeak gauza berriak eskatzen dizkizu eta produktu berriak ekartzen dituzu. Eman den aldaketa izugarriada. Lehengaltzontzillo eta kule-ro mota bakarra zegoen eta egun dagoen bariatatea ikusgarria da.

### 6. Zer erosten zen lehen eta zer orain?

Etxarri Aranatz lehen nekazal herria zen. Industrializatu zenean jendeak diru gehiago zuen, beste behar batzuk sortu ziren eta beste gauza batzuk erosten hasi zen. Diru iturria soroak eta ganadua zirenean, lehen mailako produktuak erosten ziren, soilik beharrezkoa zena, eta ahal zutenean ordaintzen zuten. Orduan fidatu egiten zen, eta jendeak ahal zutenean ordaintzen zuten, epeka. Eta askorekin trukea egiten genuen. Patatak, alobiak edo ahal zutena ekartzen zuten eta trukean ohialak ematen zituzten.

### 7. Zelako aldaketa!

Izugarria! 102 urte ditu gure dendak, eta garai haietatik hona izugarri aldatu da guztia.

**Fernando Urkijo, aita:** Maindireak piezetan saltzen genituen orduan; 25-30 metroko piezak ziren. 1955 urte-tik 1990 urtera ibili naiz herriz-herriz saltzen, eta ez dakit zenbat pieza salduko nituen, zientoka! Etxe guztietara eramaten nituen.

### 8. Lehen arkatza eta paperarekin egingo ziren kontuak...

Bai, arkatza eta paperarekin bai, baina gehienbat buruz. Aitak eta amak buruz kontuak azkar asko aterako dizkizute...

### 9. Beti egin duzu lan Sabandon?

Tarte batean bulego batean egon nintzen lanean, baina oso gutxi. Bizitza guztia daramat dendan lanean, eta gustura. Hemen jaio eta hazi naiz, ta denda barruan daramat.

### 10. Erosleak zer eskatzen du?

Bariatatea, bereziki. Bestalde, herriangerozeta jende nagusiagoa dago, eta barruko arropa, hariak, toallak, izarak, arropa eta beste herrian eskura izatea izugarri eskertzen dute.

### 11. Inguruko herrietako bezeroak dituzue?

Bai. Lizarragakoak, Unanukoak, Arbizukoak... Herri askotan zuden denda txikiak itxi dituzte, eta herri horietako jende hori Etxarri-ara dator erostera, edo Altsasura.

## Eguberri postalak eskaintza

Zorionak eta urte berri on!

Usain gozoko postalak, bi orrikoak, orri bakarrekoak... hainbat aukera

948 564 275 argi@guaixe.net